BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO

4. zk. 2023, urtarrilak 05. Osteguna 1. orr.

I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 162/2022 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa, 2023ko ekitaldiko oinarri arautzaileak ezartzen eta deialdiak onartzen baitira ekintzailetzako ekimenak sustatzeko: autoenplegua, enpresa-transmisioa eta enpresa-kontsolidazioa.

I

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak helburu nagusi bat du enpleguaren arloan: langabezian dauden pertsonak laneratu daitezen lortzea eta, aldi berean, Bizkaiko enpresetan askotariko talentua sar dadin erraztea. Horretarako, lan-aukerak sustatzeko jarduera-ildo zenbait ezartzen dira, langabeziaren gizarte-kostu handiena jasaten duten langabeentzat (denbora luzeko langabeak, 45 urtetik gorakoak, emakumeak, gizartean bazterturik daudenak edo horren arriskua dutenak, eta gazteak) eta Bizkaiko enpresentzat, horrela modua izan dezaten behar dituzten profilak berenganatzeko (kontrataziorako pizgarriak) eta laneratzea mesedetu dadin, zeina gauza egingarriagoa eta iraunkorragoa baita kasu batzuetan, enpresari autonomoaren edo enpresa kolektibo txikiaren formulen bitartez, autoenplegua sustatuz.

Langabeziaren Gizarte Kostua (LGK) gizarte batek langabeziaren aurrean duen ongizate-galera islatzen duen adierazle berri bat da, langabezia-tasa (eragina), diru-sarreren (soldata-prestazioa) galera, langabeziaren iraupena eta enplegua aurkitzeko probabilitatea barne hartzen baititu.

Bizkaiko lan-merkatuak arazo bat zuen COVID-19aren krisiaren aurretik, eta arazo horren isla da, alde batetik, langabeen %50etik gorako langabeziaren kronifikazioa, eta, bestetik, langabezian dauden pertsonen %50 baino gehiago emakumeak direla.

Gaur egun, zenbait kolektibo daude, eta horien laneratzea, kasu batzuetan, egingarriagoa eta jasangarriagoa da enpresaburu autonomoen edo enpresa kolektibo txikien formulen bidez egiten bada, besteren konturako laneratzera jo nahi bada baino. Kultura ekintzailea indartzea eta enpresa-sustatzaileei negozio-ideiak garatzen laguntzea funtsezko jarduerak dira enplegu-politikak garatzeko orduan.

II

Dekretuak I. tituluan azalarazten ditu autoenplegua eta enpresen sorrera sustatzeko beharrezko faseak. Titulu horrek hiru atal ditu. II. tituluaren xedea da sostengua ematea aurreko urteetan autoenplegu-eskubideak adjudikatu zaizkien enpresen jarraitutasunari. III. tituluak prozedura arautzen du.

I. tituluko 1. atalean enpresa-proiektuak sortzeko eta abian jartzeko laguntzak arautzen dira, aholkularitzaren eta prestakuntzaren bidez, pertsona sustatzaileei, enpresa osatzeko beharrezko arloetan, besteak beste: enpresaren forma juridikoa, eratzeko legezko izapideak, baimenak, lizentziak, finantzaketa, tributazioa eta laguntza publikoak edo bestelakoak.

Enpresa-kudeaketako aholkularitzan egiaztatutako esperientzia duten entitateei laguntzea da atal honen xedea, pertsona sustatzaileak hautatzeko proiektua aurkezten duten entitateei haiek enpresa sortzeko aholkularitza emateko hain zuzen ere.

Horrela, norgehiagoka araubidearen bidez, eremu horretan finkatuta dagoen lan-ildoa egiaztatzen dutenak hautatu nahi dira.

Laguntzaren banaketan ahalik eta elkartasun-mailarik handiena lortzeko, eta laguntzak lortu ahal izateko baldintzak betetzen dituztenek eskatutako zenbatekoen baturak deialdiaren xedeko zenbatekoa baino handiagoa bada, zenbateko horren hainbanaketa

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

egingo da onuradunen artean, proiektuen aurrekontu doituen proportzioan, betiere dirulaguntzaren baldintzak, xedea eta helburua aldatzen ez badira.

2. atalak, «Enpresak abian jartzeko eta sortzeko laguntzak» izenburupean, nortasun juridikoko enpresek, norbanako enpresaburuak eta profesionalak barne, ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari zuzenean eska diezazkioketen laguntzak arautzen ditu, betiere horien helburua bada funtzionamenduaren lehenengo urtean ordaindu behar dituzten abiatzeko eta funtzionatzeko gastuei aurre egin ahal izatea.

Laguntza hau kudeatuko da norgehiagoka araubidearen sistemaren bitartez.

3. atalean, «Enpresa-transmisioa» izenekoan, harako laguntzak arautzen dira zeinak izaera juridikoa duten enpresek, norbanako enpresaburuak eta profesionalak barne, ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek eskatu ahal baitizkiote Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari, enpresa-jardueraren transmisioak dakartzan gastuei aurre egiteko.

«Enpresen kontsolidazioa» izeneko II. tituluak harako laguntzak arautzen ditu zeinak zuzentzen baitzaizkie enpresak sortu eta abian jartzeko laguntzen esleipendun diren enpresei (2021eko eta 2022ko dekretuetakoak). Laguntzon horien xedea da sostengua ematea hasierako fasean sostengatutako enpresen jarraitutasun eta kontsolidazioari.

III

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio foru-dekretu honen xede den gaiaren gaineko eskumena, hala ondorioztatzen baita Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2. artikulua irakurrita.

Azken horrek xedatzen du Foru Aldundiari dagozkiola araubide erkideko aldundien eskumeneko gaiak, eta, ildo horretan, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.d) artikuluak ezartzen du probintziako diputazioen berezko eskumena dela «Probintziako lurraldearen garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko eta plangintza egiteko lankidetza ematea, arlo horretan beste herri-administrazioek dituzten eskumenekin bat etorriz».

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren egitura organikoa onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 30eko 66/2020 Foru Dekretua aldatzen duen otsailaren 23ko 9/2021 Foru Dekretuan ezarri denaren arabera, sail honen helburua da Bizkaiko gizartean berdintasuna, elkartasuna, gizarte-kohesioa eta enplegua bultzatzeko politika publikoak sortu eta sustatzea, eta, horretarako, zerbitzuak ematen dizkie egoera pertsonalaren, sozialaren edo familia-egoeraren ondorioz bizimodu duin eta betea garatzeko zailtasunak dituzten pertsonei. Zeregin horretan, arreta berezia jartzen du tratu txarren biktima diren emakumeen kolektiboan eta gizarte-bazterketako egoeran edo egoera horretan geratzeko arriskuan dauden pertsonen kolektiboan. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, orobat, enplegua eta herritarren lan-gaitasunak sustatzen ditu, eta giza garapen iraunkorra bultzatzen, generoaren, dibertsitatearen kudeaketaren eta lankidetza zein garapenaren arloko politiken bidez.

IV

Diru-laguntzen programa hori Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailaren 2020-2024 aldirako Diru-laguntzen bigarren Plan Estrategikoan sartuta dago (1. helburu orokorra, 1.2 jarduketa-lerroa). Plan hori Enpleguko, Gizarteratzeko eta Berdintasuneko foru diputatuaren azaroaren 15eko 9457/2019 Foru Aginduaren bidez onartu zen, eta abenduaren 1eko 9852/2020 Foru Aginduaren bidez eta Enpleguko, Gizarteratzeko eta Berdintasuneko foru diputatuaren azaroaren 17ko 12587/2021 Foru Aginduaren bidez aldatu zen.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

V

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, besteak beste, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatu nahi du Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta berdintasunaren arloko foru-politika bultzatu.

Dekretu hau egiterakoan, genero-ikuspegia txertatu da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretua betez. Horren bidez, genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak jasotzen dira.

Ildo horretan, foru dekretu honen izapidetzean generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena gehitu da.

VI

Dekretu hau egiteko, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa.

Dekretu honen garapenean, neurri sozialak ezarri dira Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuan zehaztutakoari dagokionez. Foru Dekretu horrek aldatu egiten du Dirulaguntzen Erregelamendua, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena (Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartu zen), eta onartu egiten ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren beste ingurumen-klausula publiko batzuetarako dirulaguntzak, eta onartu egiten ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren ingurumen-arloko dirulaguntzen gidaliburua.

VII

Foru dekretuak bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen diren (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Dekretu hau salbuetsita dago ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan aurreikusitako aurretiazko kontsulta publikoko eta entzunaldiko eta jendaurreko informazioko izapideetatik; izan ere, 26. artikuluan jasotako salbuespenen barruan sartzen da, xedapen horren edukiak ez baitu funtsean aldatzen Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 25eko 34/2022 Foru Dekretuaren edukia, zeinaren bidez dirulaguntzak emateko 2021eko ekitaldiko oinarri arautzaileak ezartzen eta deialdiak onartzen baitira ekintzailetzako ekimenak sustatzeko: autoenplegua, enpresa-transmisioa eta enpresa-kontsolidazioa.

Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren arabera, honako txosten hauek egin dira:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostena.
3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezkotasunari buruzko txostena.

VIII

Xedapen hau onartzeko eskumenari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1.4 eta 17.2 artikuluen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseilua da organo eskuduna.

Hori dela bide, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak azterturik, honako hau.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra.— *Dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdiak onartzea*

Onartzen dira dirulaguntzak emateko 2023ko ekitaldiko oinarri arautzaileak eta deialdiak, ekintzailetzako ekimenak sustatzeko: autoenplegua, enpresa-transmisioa eta enpresa-kontsolidazioa.

I. titulua, 1. atala, Enpresa-proiektuak sortzeko eta abian jartzeko aholkularitzaren arloko jarduerak; I. titulua, 2. atala, Enpresak abian jartzeko eta sortzeko laguntzak; I. titulua, 3. atala, Enpresa-transmisiorako laguntzak, eta II. titulua, Enpresa-kontsolidazioa, zeinen testua behean txertatzen baita.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Xedapen Gehigarri Bakarra.— *Arrekontu-izendapena*

1. Dekretu honen arabera eman daitezkeen laguntzak eta onurak ondoren aipatuko diren aurrekontuko partiden eta horniduren kontura emango dira. Partida eta hornidura horiek aurrekontuei buruzko indarreko araudiaren arabera aldatu ahal izango dira.

I. TITULUA

1. ATALA

— Partida: 0904/G/241116/42300 2008/0075.
— Hainbat urtetarako gastua 40.000,00 euro.
— Zenbatekoa, ekitalditan banatuta:
  • 2023. urtea: 20.000,00 euro.
  • 2024. urtea: 20.000,00 euro.
— Partida: 0904/G/241116/43299 2008/0075.
— Hainbat urtetarako gastua: 425.492,36 euro.
— Zenbatekoa, ekitalditan banatuta:
  • 2023. urtea: 212.746,18 euro.
  • 2024. urtea: 212.746,18 euro.
— Partida: 0904/G/241116/44300 2008/0075.
— Hainbat urtetarako gastua: 479.948,42 euro.
— Zenbatekoa, ekitalditan banatuta:
  • 2023. urtea: 239.974,21 euro.
  • 2024. urtea: 239.974,21 euro.
— Partida: 0904/G/241116/45100 2008/0075.
— Hainbat urtetarako gastua: 154.559,22 euro.
— Zenbatekoa, ekitalditan banatuta:
  • 2023. urtea: 77.279,61 euro.
  • 2024. urtea: 77.279,61 euro.

I. TITULUA

2. ATALA

— Partida: 0904/G/241116/44300 2008/0075.
— Hainbat urtetarako gastua: 4.621.900,00 euro.
— Zenbatekoa, ekitalditan banatuta:
  • 2023. urtea: 3.389.900,00 euro.
  • 2024. urtea: 1.232.000,00 euro.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

— Partida: 0904/G/241116/44900 2008/0075.
— Hainbat urtetarako gastua: 970.100,00 euro.
— Zenbatekoa, ekitalditan banatuta:
• 2023. urtea: 745.100,00 euro.
• 2024. urtea: 225.000,00 euro.

I. TITULUA

3. ATALA

— Partida: 0904/G/241116/44300 2008/0075.
— Hainbat urtetarako gastua: 200.000,00 euro.
— Zenbatekoa, ekitalditan banatuta:
• 2023. urtea: 130.000,00 euro.
• 2024. urtea: 70.000,00 euro.
— Partida: 0904/G/241116/44900 2008/0075.
— Hainbat urtetarako gastua: 7.000,00 euro.
— Zenbatekoa, ekitalditan banatuta:
• 2023. urtea: 4.900,00 euro.
• 2024. urtea: 2.100,00 euro.

II. TITULUA

— Partida: 0904/G/241116/44300 2008/0075.
• 2023. urtea: 170.000,00 euro.
— Partida: 0904/G/241116/44900 2008/0075.
• 2023. urtea: 30.000,00 euro.

2. Dirulaguntza hauetan, gehienez ere 7.099.000,00 euro eman ahal izango dira, gehienez ere, gutxi gorabehera. Kopuru hori, gehieneko zenbatekoei dagokie, eta aldatu egin daiteke 34/2010 Foru Dekretuaren 41. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Halaber, aurrekontuetako kredituen arteko banaketa gutxi gorabeherakoa da; beraz, aurkeztutako eskabide kopuruaren arabera eta kontuan izanik izaera askotako entitate onuradunak egon daitezkeela, foru-dekretu honetan ezarritako aurrekontuko izendapenak foru-dekretuan adierazitako partida ezberdinen artean banatu ahal izango dira, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatuaren foru-agindu bidez, betiere ezarritako muga orokorra gainditu gabe.

Eskabide guztiak ebatzi ondoren gehienezko aurrekontu-mugara iristen ez bada, gastu-baimenaren deuseztapena izapidetuko da soberako zenbatekoagatik, dekretu hau aldatu beharrik gabe.

3. Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen aldatu ahal izango dira aurrekontu-kredituak, Gobernu Kontseiluak onetsitako foru dekretu baten bidez, kontuan izanda zein den, aurreikuspenen arabera, eskatutako dirulaguntzen zenbateko osoa. Hala eginez gero, eskabideak aurkezteko epea luzatu beharko da.

4. Abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsitako Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bateginaren 56.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, foru dekretu honen babesean emandako dirulaguntzak baliozkoak izateko, kreditu egokia eta nahikoa egon behar da dagokion ekitaldian.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

5. Halaber, 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikuluaren arabera, aurrekontu-zuzkiduren zenbateko osoari 1.300.000,00 euro gehitu ahal izango zaizkio gehienez, kasu hauetan:

a) Kreditu-handitzeak, kreditu-sorrerak edo kreditu-gehitzeak onartzearen ondorioz kreditu erabilgarriak handitzen direnean, edo

b) Aurrez ebatzitako deialdietatik datorren zenbateko gehigarria dagoenean, deialdi horietarako aurreikusitakoa baino txikiagoa.

Zenbateko gehigarria eraginkorra izan dadin, kredituaren erabilgarritasun-adierazpena egin beharko da, dirulaguntza emateko ebazpena eman baino lehen.

Zabaltze hori horretarako eskumena duen organoak baimenduko du.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehenengoa.— *Arauen garapenerako gaikuntza*

Ahalmena ematen zaio Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatuari, foru dekretu hau osatu edo garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak eman ditzan, bai eta, aurrekontuko diru-baliabideak amaitu ezean, I. tituluaren 2. atalari dagokion bigarren deialdi bat irekitzeko ere.

Azken Xedapenetako Bigarrena.— *Indarraldia*

2023. eta 2024. urteetan egongo da indarrean.

Azken Xedapenetako Hirugarrena.— *Indarrean jartzea*

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru-dekretu hau.

Bilbon, 2022ko abenduaren 27an.

Enplegua, Gizarte Inklusioa
eta Berdintasuna, Sustatzeko foru diputatua,
TERESA LAESPADA MARTÍNEZ

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

DIRULAGUNTZAK EMATEKO 2023KO EKITALDIKO OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA, EKINTZAILETZAKO EKIMENAK SUSTATZEKO: AUTOENPLEGUA, ENPRESA-TRANSMISIOA ETA ENPRESA-KONTSOLIDAZIOA

I. TITULUA

ENPRESAK SORTZEKO ETA ENPRESA-TRANSMISIORAKO LAGUNTZAK

1. artikulua.— *Xedea.*

Titulu honetan jasotako laguntzen xedea da pertsona sustatzaileek sustatutako enpresa-proiektuak sortzeko eta abian jartzeko laguntzak arautzea, hiru jarduera-motaren bidez:

a) 1. atala.—Enpresa-proiektuak sortu eta abian jartzeko aholkularitza.

b) 2. atala.—Enpresak abian jartzeko eta sortzeko laguntzak.

c) 3. atala.—Enpresa-transmisiorako laguntzak.

1. ATALA

ENPRESA PROIEKTUAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO AHOLKULARITZA

2. artikulua.— *Diruz lagun daitezkeen ekintzak*

Dirulaguntzaren xede diren ekintzen helburua negozio-plana egitea izango da.

Entitate onuradunek enpresa-proiektuak sustatzen dituzten pertsonei bidelagunza-zerbitzu bat eskainiko diete, honetan datzana:

1. Lehenengo fasea, enpresaren eta enpresa-kudeaketaren inguruko hastapenei buruzkoa. 30 orduko taldeko prestakuntza da, zeina izan ahalko baita presentziala, erdipresentziala edo telematikoa. Era presentzialean edo erdipresentzialean emandako prestakuntzak taldekoa izan beharko du, eta gutxienez 8 eta gehienez 25 sustatzaile elkartuko ditu.

   Fase honen helburua pertsona sustatzaileei beharrezko informazioa, metodologia eta laguntza profesionala ematea da, enpresa-ideiak egokiro orientatzeko.

   Prestakuntzak, besteak beste, honako eduki hauek izango ditu:

   a) Negozioa, forma juridikoa, eratzeko legezko izapideak, baimenak, lizentziak, finantzaketa eta laguntzak, bai eta lan-arriskuak eta ingurumenekoak ere.

   b) Finantzaketa: iturriak eta motak, eta kobrantzen eta ordainketen kudeaketan ohikoak diren gainerako tresnak.

   c) Tributazioa.

   Eskabidean, entitateek orduen banaketa sartu beharko dute, edukien arabera.

2. Banakako aholkularitza-zerbitzua.

   a) Enpresa sortzea begirako negozio-plana egitea xede duen banakako aholkularitza-zerbitzua, 40 ordukoa izango da, gehienez, sustatzaile bakoitzarentzat, negozio-plan jakina egiteko.

      Negozio-planak, gutxienez, hauek eduki behar ditu:

      1) Negozio-ereduaren azalpena.

      2) Negozioaren azalpena eta kokapena.

      3) Inbertsio-proiektua eta finantzaketa-iturriak.

      4) Merkatu-azterketa.

      5) Antolamendua eta giza baliabideak.

      6) Hartutako forma juridikoa.

      7) Ekonomia- eta finantza-azterketa.

      8) Aholkularitza eskaini zaion proiektuaren bideragarritasunari buruzko txostena.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

9) Arriskuaren balorazioa.

10) Laburpena.

b) Banakako aholkularitza-zerbitzua, negozioaren bideragarritasuna aztertzea helburu duena, bai eta negozioaren balorazioa, arriskuaren balorazioa, transmisio-prozesua eta finantzaketa-iturriak ere, betiere DEMAren metodologia aplikatzen badu enpresa-transmisioan, 20. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Kasu horretan, aholkularitza-zerbitzua gehienez 80 ordukoa izango da proiektu bakoitzeko.

3. artikulua.— *Entitate onuradunak.*

1. Honako entitate hauek onuradun gisa hartuko dira:

a) Bizkaiko Lurralde Historikoko udal izaerako enplegu eta tokiko garapenerako zentroak, edo organismo autonomiadunak, enpresa publikoak edo haien mendeko edo haiekin lotutako bestelako entitateak.

b) Sozietatearen eta zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duten fundazioak, elkarteak eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateak.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateak.

d) Entitate onuradunek gutxienez ere hiru urteko esperientzia egiaztatu behar dute enpresa-kudeaketako aholkularitzaren arloan. Horretarako, entitateek euren esperientziaren memoria aurkeztu behar dute; bertan, eurek egin dituzten jardueren berri eman behar dute.

2. Onuradunak izateko, entitateek ezin dute egon Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan zein ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan jasotako inongo debekuren mendean.

3. Ez dira entitate onuraduntzat hartuko prestakuntza-zentroak, ez eta haien mendeko elkarteak edo fundazioak ere, salbu eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateak.

4. Pertsona fisiko eta juridiko hauek ezin izango dute, inola ere, inolako laguntza edo dirulaguntzarik jaso:

a) Berdintasunerako eta sexuan oinarritutako bereizkeriarik ez izateko eskubidea urratzeagatik zehapen irmoa izatea administrazio-, lan- edo zigor-bidean.

b) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren aurkakoak diren xede edo helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak.

c) Ez betetzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen III. tituluan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo foru arau honetan ezarritako betebeharrak.

Halaber, ezin izango dira diruz lagundu sexuagatiko bazterkeria eragiten duten jarduerak edo ekintzak.

4. artikulua.— *Laguntzen zenbatekoa eta muga*

1. Emango diren laguntzak dirulaguntzak izango dira, baina ezin izango dute inolaz ere gainditu diruz lagun daitezkeen ekintza aurkeztuen benetako kostua.

2. Dirulaguntza kalkulatzeko, kontuan hartuko da zenbat proiektu aholkatu eta abian jarri diren 2021eko urriaren 1etik 2022ko irailaren 30era, baldin 6. 3) artikuluan aurreikusitako eran egiaztaturik badaude.

3. Laguntzaren gehienezko zenbatekoa hauen batura izango da:

a) 2021ko urriaren 1etik 2022ko irailaren 30era bitartean aholkatutako eta abian jarritako proiektuen guztizko kopuruaren gainean %10 emendatzetik ateratzen den zenbakia 1.500 eurorekin biderkatzearen emaitza.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

b) 2021ko urriaren 1etik 2022ko irailaren 30era arte, 20. artikuluan ezarritako terminoetan, aholkatutako eta gauzatutako enpresa-transmisioko proiektuen guztizko kopuruaren gainean %10 emendatzetik ateratzen den zenbakia 3.000 eurorekin biderkatzearen emaitza.

Hala, bada, dirulaguntza izango da eskatutako zenbatekoaren eta apartatu honetan xedatutako gehieneko zenbatekoaren artean txikiena dena.

4. Entitate eskatzaile bakoitzeko eta diruz lagun daitezkeen ekintza aurkeztuen multzo bakoitzeko, 80.000 euro izango da gehieneko dirulaguntza; zenbateko horretan, 2. artikuluan ezarritako bi faseak gauzatze aldera –bai prestakuntza, bai banakako aholkularitza– entitateak bere gain hartu dituen diruz laguntzeko moduko gastuak egotziko dira.

Edozelan ere, ezin izango da enpresa-proiektu bera eskabide baten baino gehiagotan aurkeztu, ez egin beharreko proiektu legez, ez justifikaturiko proiektu legez.

5. artikulua.— *Diruz lagun daitezkeen gastuak eta azpikontratazioa*

1. Diruz lagun daitekeen gastutzat joko dira benetako kostuei dagozkienak, benetan egindakoak eta ordaindutakoak eta fakturen edo kontabilitateko frogagiri baliokideen bitartez aurkeztutakoak, baldin eta behar bezala justifikatzen badira eta behar diren agiriak erantsita aurkezten badira.

2. Bi motatako gastuetarako jaso daiteke dirulaguntza:

a) Kanpoko prestakuntzako gastuak,

b) Diruz lagundutako jarduerak gauzatzen zuzenean parte hartu duen entitate onuradunaren barneko pertsonal-gastuak. Soldaten eta karga sozialen ordainketa egiaztatzen duten agirien bidez bakarrik justifikatuko dira gastu horiek.

3. Diruz lagundu daitekeen justifikatu beharreko gastuaren gehieneko zenbatekoa hauen baturaz zehaztuko da:

a) 2022ko urriaren 1etik 2023ko uztailaren 28ra bitartean aholkatu eta abian jarritako enpresa-sorrerarako proiektuen kopurua, bider 1.500 euro.

b) 202eko urriaren 1etik 2023ko uztailaren 28ra bitartean, 3. atalean ezarritako ezaugarriei jarraituz, aholkatu eta abian jarritako enpresa-sorrerarako proiektuen kopurua, bider 3.000 euro.

4. Soilik 2.1 artikuluan adierazitako egitekoak azpikontratatu ahalko dira; 2.2 artikuluan adierazitakoak ezingo dira azpikontratatu.

6. artikulua.— *Emateko prozedura eta balorazio-irizpideak*

1. Norgehiagoka araubidearen bidez hautatuko dira eskabideak, 37. artikuluan ezarritako moduan.

2. Hainbanaketa lortzeko, eskatutako zenbatekoaren eta 4. artikuluko 3. atala ezartzearen ondorioz gertatutako zenbatekoen arteko kopururik txikiena hartuko da oinarri legez. Entitate onuradun bakoitzeko oinarri hori artikulu honen 3. eta 4. zenbakiak aplikatuta lortutako puntuazioaz biderkatuko da eta gertatutako emaitza C izango da.

Hainbanaketa honela ezarriko da: C deritzona berez baliagarri dagoen gehieneko zenbatekoa zati entitate onuradun bakoitzari dagozkion C zenbateko guztiak batzearen emaitzaz biderkatuz, betiere eskatutako zenbatekoaren mugarekin eta gehienez ere 4. artikuluan ezarritako 80.000 euroko kopurua.

3. Aurkeztutako eskabideak baloratu eta dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, balorazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Eskabidearen zehaztasun-maila, kalitatea, edukia, aurkezpena eta eraginkortasuna. Gehienez, 5 puntu.

Irizpide hori baloratzeko, entitate eskatzaileak txosten bat aurkeztu beharko du, eta, bertan, gutxienez honako hauek jaso beharko ditu:

1) Proposatutako ekintzaren egokitasuna justifikatzeko arrazoiak.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

2) Sustatzaileen hartze, profil eta aukeraketaren deskripzioa.

3) Enpresa-kudeaketaren gaineko prestakuntzan aplikatutako metodologia, eduki bakoitzaren eta eduki horien iraupenen arabera.

4) Negozio-plana egiteko aplikatutako metodologia, eduki bakoitzaren eta eduki horien iraupenen arabera.

b) Aurkeztutako jarduera-planak entitate eskatzailearen helburu, ildo eta jarduerekiko duen koherentzia. Gehienez, 5 puntu.

c) Zenbat proiektu aholkatu dituen entitate eskatzaileak eta jarri diren abian 2021eko urriaren 1etik 2022ko irailaren 30era bitartean. Gehienez, 15 puntu.

Entitate eskatzaileak proiektu bat aholkatu duela jotzeko, 8.2 artikuluan aipatzen den egiaztagiria (aholkularitzako orduen egiaztagiria) aurkeztu behar da, bai eta negozio-plana ere, plana noiz egin den eta entitate eskatzaileren logotipoa ageri dituela.

Irizpide honen kalkulua egiteko, 0,5 puntu emango dira aldi horretan aholkatu den eta abian jarri den proiektu bakoitzeko.

Dekretu honen ondorioetarako, proiektu bat abian jartzea jotzen da proiektuari alta ematea jarduera ekonomikoaren batean, edo, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren pean ez dauden jarduerei dagokienez, autonomoen araubidean edo beste araubide bereziren batean ematea alta.

d) Entitate eskatzaileak aholkatutako eta 2021eko urriaren 1etik 2022ko irailaren 30era bitartean abian jarritako proiektuen sustatzaileak bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen kolektibokoak izatea proiektua abian jartzen den egunean.

Balorazio-irizpide hori kalkulatzeko, aurretik aipatutako betekizunak betetzen dituen sustatzaile bakoitzeko, 0.5 puntu emango dira. Nolanahi ere, entitate onuradun bakoitzeko, puntuazioa ezin da izan 10 puntukoa baino handiagoa.

Pertsona sustatzaileak, kolektibo batean baino gehiago sartu ahal badira ere, kolektibo horietako batean sartzeagatik baino ezin izango dira baloratu.

e) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken edo jarduketen garapenean entitate eskatzaileak izan duen ibilbidea. 4 punturekin baloratuko da emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak edo jarduketak gauzatu izana 2021ean eta 2022an enpresa-proiektuak abian jartzeari begirako aholkularitza-arloan.

f) Bizkaiko eskualdeetan edozein era juridikoren bidez «Centro de Empleo y Desarrollo Local Behargintza» / «Behargintza, Enplegu eta Tokiko Garapenerako Zentroa» osatzen duten entitate eskatzaileek, euren jarduketa-eremuak 25 000 biztanletik beherako udalerriak hartzen baditu, 5 puntuko puntuazioa lortuko dute.

4. Berdinketa gertatzen bada, eskatzaileen arteko ordena lehentasun-irizpide hauen arabera erabakiko da:

a) Artikulu honen c) irizpidean puntuaziorik handiena lortu dutenak.

b) Artikulu honen d) irizpidean puntuaziorik handiena lortu dutenak.

c) Eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualeko sarrera-erregistroan izan duen lehentasunezko hurrenkera.

7. artikulua.— *Bazterkeria-arriskuan dagoen kolektiboaren ezaugarriak*

Dekretu honen ondorioetarako, honako hauek jotzen dira bazterkeria-arriskuan dauden pertsonatzat:

a) Bizkaian inklusioa sustatzeko dauden gizarte-zerbitzu foralen mendeko edozein zentro eta programa publikotan dauden pertsonak; ekainaren 30eko 66/2020 Foru Dekretuaren 15. 1 a) artikuluan definitzen dira zerbitzuok.

b) Bizkaiko Lurralde Historikoko udalen baten oinarrizko gizarte-zerbitzuen arabera baztertuta egoteko arriskuan dauden pertsonak, betiere ebaluazio eta diagnos-

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

tikorako legez onetsitako ohiko tresna teknikoak erabilita hala baloratu bada eta oinarrizko gizarte-zerbitzu eskudunak txosten bidez egoera hori egiaztatu badu.

c) %33 edo gehiagoko minusbaliotasun-gradua aitorturik duten pertsonak.

d) Guraso bakarreko familiako aita edo ama, baldin eta egiaztatzen badu ordaindutako jarduerarik egiten ez duen ondorengo bat edo batzuk dituela bere kargupean.

e) Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean ezartzen diren prestazio ekonomikoen onuradun izaera eskuratu duten pertsonak, edo martxoaren 22ko 60/2011 Foru Dekretuak arautzen dituen gizarte-inklusiorako laguntza berezien onuradun izaera dutenak (abenduaren 13ko 207/2011 Foru Dekretuan egindako idazkeran), bai eta haien bizikidetza-unitateko kideak eta abenduaren 20ko 19/2021 Legeak arautzen duen bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradunak ere.

f) Toxikomano ohiak (alkoholiko eta drogazale ohiak); foru-dekretu honetan ezarritako laguntzen ondoreetarako, halakotzat hartuko dira talde terapeutiko egokiaren ustetan, desintoxikazio-fasea eta mendekotasuna kentzeko fasea gainditu ondoren eta etengabeko tratamenduan 6 hilabete emandakoan lanaren bidez gizarteratzeko programa batean egon behar direla uste den pertsonak.

g) Genero-indarkeriaren biktimak; Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera edo Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumea babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak esku-hartu duelako egiaztagiriaren bidez.

h) Preso ohiak, integrazio-prozesuetan dauden errefuxiatuak eta etxerik gabeko bizimodua uzteko prozesuak gainditu dituzten pertsonak.

i) Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima gisa detektatutako emakumeak.

Goian jasotako inguruabar horiek kontuan hartzeko, jarduera ekonomikoetan alta ematen den egunari begiratu beharko zaio.

8. artikulua.— *Aurkeztu beharreko agiriak.*

Dirulaguntza eskatzen duen entitateak honako nahitaezko dokumentazio hau aurkeztu beharko du, eskabidearekin batera eta Internetez, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualean:

1. Banku-helbideratzearen fitxa. Bankuko helbideratze-fitxa aurkeztu beharko da soilik Bizkaiko Foru Aldundiarekiko harremanetan dirulaguntza sartu nahi den kontua berria denean.

   Fitxan adierazitako kontu-zenbakiak bat etorri beharko du eskabidean adierazitakoarekin.

   Banku-helbideratzearen fitxak, baliozkoa izateko, alderdi guztiak beteta egon beharko du, horretarako eskatzen diren sinadurekin eta zigiluekin. Bete beharreko eredua Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailaren Bulego Birtualean egongo da.

2. Entitate eskatzaileak aholkatutako eta 2021eko urriaren 1tik 2022ko irailaren 30era bitartean abian jarritako proiektuen zerrenda. Dokumentazio hau aurkeztu behar da:

   a) Proiektu batek eskatzen ez duenean 34/2022 Foru Dekretuaren 2. atalean jasotako dirulaguntzarik eta ez bada aurkeztu 34/2022 Foru Dekretuaren 1. atalean jasotako dirulaguntzaren justifikazioan, entitate eskatzaileak formatu elektronikoan aurkeztu beharko du negozio-plana, bai eta egiaztagiria ere, aholkatutako proiektu bakoitzaren sustatzaile arduradunak sinatuta, zeinean zehaztuko baitira jasotako aholkularitza-orduak eta berorien edukia, eta jasotako prestakuntza-orduak.

   b) 34/2022 Foru Dekretuaren 2. atalean jasotako dirulaguntza eskatu duten proiektuak direnean.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

1) Eta, gainera, baldin oinarrien dekretuaren 1. ataleko dirulaguntza eskatu duen entitateak 34/2022 Foru Dekretuaren justifikazioan sartu badu proiektu hori, zehaztu beharko dira, soil-soilik, 34/2022 Foru Dekretuaren 2. ataleko dirulaguntza eskatu duen enpresaren sozietate-izena eta IFZa, eta prozedura horretan esleitutako administrazio-espedientearen zenbakia.

2) Hala ere, entitateak ez badu proiektu hori 34/2022 Foru Dekretuaren justifikazioan sartu, orduan adierazi beharko ditu 34/2022 Foru Dekretuaren 2. atalean jasotako dirulaguntza bat eskatu duen enpresaren sozietate-izena eta IFZa, bai eta prozedura horretan eman zitzaion administrazio-espedientearen zenbakia ere; horrez gain, egiaztagiria aurkeztu beharko du, aholkutako proiektu bakoitzaren sustatzaile arduradunak sinatuta, zeinean zehaztuko baitira jasotako aholkularitza-orduak eta berorien edukia, eta jasotako prestakuntza-orduak.

c) Enpresa-transmisioko proiektu batek ez badu eskatu 34/2022 Foru Dekretuaren 3. atalean jasotako dirulaguntzarik eta ez bada aurkeztu 34/2022 Foru Dekretuaren 1. atalean jasotako dirulaguntzaren justifikazioan, entitate eskatzaileak formatu elektronikoan aurkeztu beharko ditu:

1) Negozioaren bideragarritasun-azterketa eta negozioaren balorazioa, arriskuaren balorazioa, transmisio-prozesua eta finantzaketa-iturriak.

2) Transmisioan DEMAren metodologia aplikatu izana egiaztatzen duen ziurtagiria.

3) Aholkatutako proiektu bakoitzaren ardura duen sustatzaileak sinatutako egiaztagiria, zeinean zehaztuko baitira jasotako aholkularitza-orduak eta edukia, eta jasotako prestakuntza-orduak.

3. Hala, 6.3.d) artikuluko irizpidea baloratzeko, banakako egiaztagiri eguneratua aurkeztu beharko dute, Bizkaiko Foru Aldundiak edo beste edozein organo eskudunek emana, non egiaztatuko baita 7. artikuluan deskribatzen diren taldeetako batekoa dela.

4. Memoria bat, hauek edukiko dituena:

a) Proposatutako ekintzaren egokitasuna justifikatzeko arrazoiak.

b) Sustatzaileen hartze, profil eta aukeraketaren deskripzioa.

c) Enpresa-kudeaketaren gaineko prestakuntzan aplikatutako metodologia, eduki bakoitzaren eta eduki horien iraupenen arabera.

d) Negozio-plana egiteko aplikatutako metodologia, eduki bakoitzaren eta eduki horien iraupenen arabera.

e) Aurkeztutako jarduera-planak entitate eskatzailearen helburu, ildo eta jarduerekiko duen koherentzia.

f) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikei edo jarduketei dagokienez entitate eskatzaileak egindako jarduketen zerrenda zehatza, 2021ean eta 2022an enpresa-proiektuak abian jartzeari begirako aholkularitza-arloan.

5. Laguntza hauek eman diezazkioten, eskatzaileak nahitaez egiaztatu beharko du, laguntzak emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen, egunean dituela zerga-betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak, eta ez duela zorrik Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak kudeatzen dituen enbargo ordaingabeak direla eta.

6. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Enplegua Sustatzeko Zerbitzuak, datuen elkarreragingarritasun-sistemen bidez (NODO) eta dirulaguntzak kudeatzeko, Administrazioaren esku dauden datuen beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egin ahal izango ditu.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

9. artikulua.— *Dirulaguntza ordaintzea*

Emandako laguntza epe hauetan ordainduko da:

1. Dirulaguntza ematen den unean, gehienez dirulaguntzaren %50 ordainduko da.
2. Gainerako portzentajea 2024. urtean ordainduko da, ekintzak garatzeko emandako laguntzaren justifikazioa egindakoan. Justifikazio hori 2023ko abenduaren 30a baino lehen egin beharko da, 10. artikuluan zehaztutako justifikazio-agiriak aurkeztuta.

Justifikazioari buruzko agiriak aurreko ataletan zehaztutako epearen barruan aurkezten ez badira, 45. artikuluan xedatutako ez-betetze prozedura irekiko da.

10. artikulua.— *Justifikazioa*

Emandako dirulaguntza beranduenez 2023ko abenduaren 30ean justifikatu beharko da, muga-egun gisa.

Emandako diru-laguntza justifikatzeko, erakunde onuradunak 34/2010 Foru Dekretuaren 57. artikuluak arautzen duen justifikazio-kontua aurkeztuko du Internet bidez, Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailaren Bulego Birtualaren bidez, gastu-egiaztagiriekin eta honako dokumentazioarekin batera:

1. Dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duen jarduketa-memoria bat, hauek eduki beharko dituena:
   a) Egindako ekintzen, aholkularitzaren eta prestakuntzaren deskripzioa, prestakuntza-ikastaroen datak eta parte-hartzaileak.
   b) Foru-dekretu honen babesean dirulaguntza jasotzeko aurkeztu ez diren proiektuak izanez gero, sortu diren enpresen zerrenda, haien sozietate-izena eta IFZ zehaztuta.

      Era berean, enpresa-proiektu bakoitzeko, negozio-plana eta 2. 1) artikuluan eskatzen den prestakuntza-ikastaroa egin izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dira, kasuaren arabera, edo negozioaren bideragarritasunaren azterketa, baita negozioaren balorazioa, arriskuaren balorazioa, transmisio-prozesua eta finantzaketa-iturriak ere, eta lehenago aipatutako prestakuntza ikastaroa.
   c) 2. atalean edo 3. atalean ezarritakoaren babesean dirulaguntza eskatu duten proiektuak izanez gero, entitate eskatzailearen sozietate-izena eta IFZ eman beharko dira, bai eta esleitu zaion administrazio-espedientearen zenbakia ere.
   d) Kasu guztietan, direla dekretu honen babesean dirulaguntza eskatu duten proiektuak direla dekretuaren babesean dirulaguntzarik eskatu ez duten proiektuak, denetan aurkeztu beharko da ziurtagiri bat, aholkaturiko proiektu bakoitzaren sustapenaz arduratu denak sinatua, non zehatz jaso behar diren zenbat aholkularitza- eta prestakuntza-ordu jaso diren eta zein izan den orduon edukia.
   e) Genero-inpaktuaren ebaluazio-txostena, non jasoko baitira sexu edo/eta generoaren arabera xehekatutako adierazle eta datuak eta beste aldagai batzuk eta identifikatuko baitira berdintasunik ezak, hauen kontrako neurriak eta berdintasunaren alde lortutako eragina.
2. Egindako jardueren kostua justifikatzen duen txosten ekonomikoa, hauek edukiko baititu:
   a) Diruz lagundutako jarduerari egotzitako gastu eta sarreren egoera-orria, 5. artikuluarekin bat.
   b) Aurreko a) letran adierazitako gastuen egoera-orria osatzen duten partidetako bakoitzerako, diruz lagundutako jardueraren gastuen zerrenda sailkatua.

      Justifikazio hau aurkezteko, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak ezarritako «justifikazio-kontua» izeneko eredua aurkeztu beharko da, sailaren web orrialdean egongo dena:

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

(http://web.bizkaia.eus/es/empleo-inclusion-social-e-igualdad) Programak eta Zerbitzuak atala, ekintzailetzako ekimenak, fitxategi erantsiak: justifikazio-kontua.

Eredua, bete ondoren, karpeta bakar batean eta euskarri informatikoan aurkeztu eta entregatuko da, sail horren Bulego Birtualaren bidez.

c) Fakturak edota froga-balio parekidea duten kontabilitate-agiriak —aurreko puntuko gastuen egoera-orrian adierazitakoak—; haien ordainketa-agiriaren kopia; langileen izen-deituren zerrenda eta diruz lagun daitekeen jarduera gauzatu den hilabeteetako nominak.

Fakturak, nominak eta langileen izenen zerrendak (LIZ) honela aurkeztuko dira:

Fakturak eta ordainketa egiaztatzeko dokumentazioa dokumentu bakar batean erantsi beharko dira.

Nominen kopiak dokumentu bakar batean bildu beharko dira, langile bakoitzeko taldekatuta.

Langileen izenen zerrendaren kopiak dokumentu bakar batean bildu beharko dira.

Enplegu eta garapen lokalerako zentroek ez badute nortasun juridiko propiorik, dagozkien erakunde lokaletatik eta organismo autonomoetatik bereiz, orduan, nominak eta langileen zerrenda izenduna aurkeztu barik, udaleko kontu-hartzailetzaren arduradunak emandako ziurtagiri bat aurkeztu ahal izango da, non egiaztatuko den zer ordainketa egin dituen udal korporazioak, oro har, ezarritako epean. Ziurtagiri horretan, proiektuan parte hartzen duten langileen kostuak banakaturik adieraziko dira.

d) Diruz lagundutako ekintzan parte hartzen duten langileen ziurtagiria, betiere orduak eta ordu-kostua banakaturik.

e) Prestakuntza-ekintza azpikontratatzen denean, guztiz edo partez (2.1 art.), orduan aurkeztu beharko dira onuradunak eskatu behar dituen hiru aurrekontuak, zergatik eta Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikulua aplikatu behar baitira.

f) Hala badagokio, aplikatu gabeko soberakinen itzulketaren ordainketa-gutuna.

11. artikulua.—*Diruz lagun daitekeen gauzatze-epea.*

Dirulaguntzaren xede diren ekintzak 2022ko urriaren 1etik 2023ko uztailaren 28ra bitartean egin beharko dira.

2. ATALA

ENPRESAK ABIAN JARTZEKO ETA SORTZEKO LAGUNTZAK

12. artikulua.—*Diruz lagun daitekeen ekintza*

Enpresa bat sortzea, abian jartzea eta funtzionaraztea izango dira diruz lagun daitezkeen ekintzak. Enpresa horiek edozein forma juridiko izan dezakete, atal honetan ezartzen diren baldintzak betez gero, norbanako enpresaburuak ere izan daitezke, bai eta profesionalak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak ere.

13. artikulua.—*Entitate onuradunak*

1. Atal honetan araututako dirulaguntzak eskuratzeko aukera izango dute enpresek, zeinahi dela haien forma juridikoa, enpresaburu indibidualak barne direla, profesionalek, eta ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Sozietatearen egoitza eta zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea. Eta, era berean, lantokia ere lurralde horretan izatea.

b) 2022ko urriaren 1etik 2023ko uztailaren 28ra bitartean, biak barne, Bizkaiko Foru Ogasunean jarduera ekonomikoetan alta emanda egotea; eta dirulaguntza eska-

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

tzen den egunean altari eustea, espedientea eskatu, izapidetu eta ebazten den egunean.

c) Alta eragin duen jarduera ekonomikoak zuzenean egon behar da lotuta aurkezten den negozio-planarekin.

d) Egunean izatea bere zerga-betebeharrak edo indarreko xedapenek ezarritako Gizarte Segurantzarekikoak.

e) 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluko zein ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluko debekuetan aipatzen diren egoeretako batean ez egotea.

2. Goiko baldintzak bete arren, hauek ez dira onuradun izango:

a) IFZ/NAN bera izanda 2023. urtean edo 2022. urteko azken seihilekoan jarduera ekonomikoen gaineko zergan, hain zuzen, dirulaguntzari dagokion jarduera-ekonomikoan baja eman duten entitateak.

b) Enpresaburu indibidualak eta profesionalak, baldin eta nortasun juridikoa duen enpresa edo nortasun juridikorik gabeko enpresa bateko bazkide edo erkide izan badira eta enpresa horrek 2023. urtean edo 2022. urteko azken seihilekoan baja eman badu jarduera ekonomikoen gaineko zergan, hain zuzen, dirulaguntza eskatzen duen enpresaburu indibidualaren jarduera-ekonomiko berean.

c) Enpresaburu indibiduala eta profesionalak eta nortasun juridikoa duen enpresak edo nortasun juridikorik gabekoak, baldin eta 77/2021 eta 34/2022 Foru Dekretuen kargurako dirulaguntza baten adjudikaziodun izan badira.

d) Enpresaburu indibidualak eta profesionalak baldin eta nortasun juridikoa duen enpresa edo nortasun juridikorik gabeko enpresa bateko bazkide edo erkide izan badira eta 77/2021 eta 34/2022 Foru Dekretuen kargurako dirulaguntza baten adjudikaziodun izan badira.

e) Enpresaburu indibidualak eta profesionalak eta nortasun juridikoa duten enpresak edo nortasun juridikorik gabekoak edo nortasun juridikoa dutenak, baldin eta haietako ezein bazkide edo erkide kontuan hartu behar ez bada 15. artikulua aplikaturik dirulaguntzaren kalkulua egiteko.

f) Pertsona fisiko eta juridiko hauek ezin izango dute, inola ere, inolako laguntza edo dirulaguntzarik jaso:

1) Berdintasunerako eta sexuan oinarritutako bereizkeriarik ez izateko eskubidea urratzeagatik zehapen irmoa izatea administrazio-, lan- edo zigor-bidean.

2) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren aurkakoak diren xede edo helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak.

3) Ez betetzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen III. tituluan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan.

Halaber, ezin izango dira diruz lagundu sexuagatiko bazterkeria eragiten duten jarduerak edo ekintzak.

14. artikulua.— *Sustatzaileek bete beharreko baldintzak*

1. Honako hauek entitate onuradunetako pertsona sustatzaile gisa hartuko dira:

a) Norbanako enpresaburua edo profesionala.

b) Ondasun-erkidego edo sozietate zibil bateko bazkide langilea.

c) Enpresa bateko bazkide langilea, zeinak bete beharko baititu, enpresako bazkide izateaz gainera, artikulu honen hurrengo atalean zehazten diren baldintzak ere.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

d) Uztailaren 11ko 20/2007 Legearen II. tituluko III. kapituluan aipatutako hauek: ekonomikoki mendekoak diren autonomoak, betiere 14. artikulu honetako baldintzak betetzen badituzte.

Enpresaburu autonomo baten laguntzailea den senidea ez da joko sustatzailetzat.

2. Aurreko 13. artikuluan aipatu diren entitate onuradunetako sustatzaileek baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Sustatzaileak Bizkaian bizi dela egiaztatu behar du, etenik gabe, jarduera ekonomikoen alta-dataren aurreko hiru hilabeteetan gutxienez..

b) Sustatzaileak izan behar du 2022ko urriaren 1etik 2023ko uztailaren 31raarte alta emandakoa, egun biak barne, langile autonomoen araubide berezian edo haren pareko mutualitateren batean.

Baldintza hori ez zaie eskatuko elkartutako lan-kooperatibetako bazkide langileei, ezta ere lan-sozietateetako bazkide langileei, Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean alta ematea erabaki badute; halere, alta hori aipatutako epe horren barruan gertatu behar da.

c) Horretaz gain, sustatzaileak egoera hauetako bat egiaztatu behar du jarduera ekonomikoetan alta ematen duen egunaren aurre-aurreko unean:

— Langabezia: sustatzailea enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egon behar da enplegu-zerbitzu publiko batean.

— Enplegua hobetzea, betiere lan-kontratuak hitzarmenean ezarritako lanaldiaren %40 gainditzen ez badu eta sustatzailea enplegu-zerbitzu publiko batean enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta badago.

— ERTE batek edo EEE batek eragindakoa

— Lanekoak ez diren praktikak egin izana.

3. Gainera, entitate onuraduneko sustatzaile batek gutxienez egin behar izan ditu dekretu honen 2. artikuluan zehaztutako prestakuntza eta banakako aholkularitza, 2022ko urriaren 1etik 2023ko uztailaren 31ra bitartean, dekretu honen 1. ataleko entitate adjudikaziodunekin, edo prestakuntza eta banakako aholkularitza Barakaldoko DEMA Enpresa Garapena Elkartearekin, epe beraren barruan.

Orobat jaso ahalko dute laguntza, kasu bakoitzerako ezarritako oinarri arautzaileen babesean, 2022an eta 2023an Barakaldoko DEMA Enpresa Garapenak sustatutako Anezka eta/edo Taldeka programetan eta/edo enpleguaren arloko prestakuntza-programa mistoetan parte hartu eta ondo gainditu dituzten pertsonek, betiere artikulu honen 1. eta 2. zenbakietan eta dekretuaren gainerako artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Horretarako, eskabidearekin batera, Barakaldoko DEMA Enpresa Garapenaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, inguruabarrok egiaztatzen dituena.

Salbuespen gisa, ikastaroak eta negozio-planak onartuko dira baldin 2022ko uztailaren 1etik irailaren 30era bitartean egin badira 34/2022 Foru Dekretuaren I. tituluko 1. ataleko entitate adjudikaziodunetako batekin edo Barakaldoko DEMA Enpresa Garapenarekin.

Entitate onuraduneko pertsona sustatzaileetako batek gutxienez bete beharko du 3 zenbakiko betekizun hori, eta, gainera, pertsona horrek 1. eta 2. ataletako gainerako baldintzak ere bete behar ditu.

15. artikulua.— *Dirulaguntza kalkulatzea eta haren zenbatekoa*

1. Entitate onuradunak 5.000 euroko dirulaguntza jasoko du, eta gehieneko dirulaguntza 15.000 eurokoa izango da.

2. Dirulaguntza lortzeko, entitate onuradunak bete beharko ditu 13. artikuluko baldintzak; hori ez ezik, haren sustatzaile batek edo bazkide langile batek bete beharko ditu 14. artikuluko 1., 2. eta 3. apartatuetako baldintzak.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

3. Zenbateko hori 2.000 euro emendatuko da aurreko paragrafoan zehaztutakoa ez den bazkide edo sustatzaile bakoitzeko, baldin honek betetzen baditu 14. artikuluko 1. eta 2. apartatuetako edo 14. artikuluko 1., 2. eta 3. apartatuetako baldintzak; gehienez, bost bazkide edo sustatzaileraino.

Hau da, artikulu honetako 2. apartatuan zehaztutakoa ez den sustatzaileren batek 14. artikuluko 1., 2. eta 3. apartatuetako baldintzak betetzen baditu ere, 2.000 eurorekin hartuko da kontuan dirulaguntza kalkulatzeko orduan.

4. Beraz, dirulaguntza kalkulatzeko kontuan, gehienez, 6 sustatzaile edo bazkide langile sar daitezke; ondorioz, entitate onuradun bakoitzeko eman daitekeen dirulaguntzaren kopururik handiena, gehien jota, 15.000 euro izango da guztira.

Entitate eskatzaile bakoitzak gehienez lor dezakeen dirulaguntza izango da artikulu honetan ezarritakoaren araberako zenbatekoa kalkulatzearen emaitza.

Hala ere, zenbatekoa aldatu egin daiteke araubide orokorrean, autonomoen araubide berezian edo mutualitatean alta emandako eguna jarduera ekonomikoen altaren data baino geroago bada.

Kasu horretan, dirulaguntza kalkulatzeko, gehieneko dirulaguntza hartuko da oinarritzat eta 12 hilabetetan zatituko da, eta jarduera ekonomikoetan alta eman eta urtebetean araubide orokorrean, autonomoen araubide berezian edo mutualitatean alta emandako hilabeteekin biderkatuko da.

5. Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, bazkidea edo sustatzailea ez da kontuan hartuko:

a) Baldin eta baja izan badu jarduera ekonomikoaren kode berean (lau digituko kode numerikoa), langile autonomoen araubideko lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak direla-eta, edo jarduera berean, mutualitateen kasuan, 2023. urtean edo 2022. urteko azken seihilekoan.

b) Parte hartzen duen enpresa-proiektu guztietan, kontuan hartuko da I. titulu honetako 2. atalean nahiz 3. atalean jasota dauden dirulaguntzetarako aurkeztutako proiektuetako batean bakarrik, zeina egokituko baitzaio Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualaren erregistroan aurrena sartu den eskabideari.

16. artikulua.— *Emateko prozedura eta balorazio-irizpideak*

1. Eskabideak norgehiagoka araubidearen bidez hautatuko dira, 37. artikuluan ezarritako moduan.

2. Aurkeztutako eskabideak baloratzeko eta dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko dira hurrengo balorazio-irizpideok; izan ere, irizpide hauek ezarriko zaizkio 14. artikuluko 1., 2. eta 3. apartatuetako baldintzak betetzen dituen sustatzaileari.

3. Baldintzak eta balorazio irizpideak betetzeko, dirulaguntza eskatu duen entitateak ekonomia jardueretan alta eman duen data hartuko da erreferentziatzat.

4. Entitate onuradun batek sustatzaile bi edo gehiago dituenean, 14 1. 2. eta 3. artikuluko baldintzak betetzen dituztenak, orduan entitate onuradunak lortuko du 14 1. 2. eta 3. artikuluko baldintzak betetzen dituzten sustatzaileen puntuaziorik handiena.

Hau da, sustatzaile bakoitzaren puntuazioen batura osotik ateratzen den puntuaziorik handiena hartuko da, eta ez dira inoiz batuko sustatzaileen artean lortutako puntuazioak.

5. Balorazio-irizpideak:

a) Langabezian egindako denbora. Irizpide hori baloratzeko, entitate eskatzaileak bi txosten hauek aurkeztu behar ditu: «Inskripzio-aldiei eta lan-egoerari buruzko txostena», Lanbidek edo enplegu zerbitzu publiko batek emandakoa, eta pertsona sustatzailearen «Lan-bizitzari buruzko txostena», Gizarte Segurantzak emandakoa edo, hala badagokio, mutualitate baliokidearen txostena.

Aipatutako txosten bien artean inkongruentziarik badago, lan-bizitzara edo mutualitate baliokidera joko da.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

Langabezia-egoeratzat joko da sustatzailea enplegu-zerbitzu publikoa batean etenik gabe enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egon den denbora, Gizarte Segurantzan edo antzeko mutualitate batean alta eman gabe egon bada.

Irizpide hau kalkulatzeko, irizpide hau honelaxe puntuatuko da:

1) Urtebete baino gutxiagoko langabezia-egoera: puntu 1.
2) Urtebeteko edo urtebete baino gehiagoko baina urte bi baino gutxiagoko langabezia-egoera: 3 puntu.
3) Urte biko edo gehiagoko langabezia-egoera: 5 puntu.

b) Sustatzailea bazterkeria-egoeran dauden taldeetako batekoa izatea, horrelakotzat hartzen direla 7. artikuluan zehaztutakoak.

Irizpide hau kalkulatzeko, irizpide hau honelaxe puntuatuko da:

1) Sustatzailea bazterkeria-egoeran dagoen talde batekoa izatea: 3 puntu
2) Sustatzailea ez izatea bazterkeria-egoeran dagoen talde batekoa: 0 puntu

c) Sustatzailearen adina. Irizpide hori kalkulatzeko, puntuak honela emango dira:

1) 30 urte arteko gaztea, jarduera ekonomikoen alta-data artekoa: 3 puntu
2) 45 urte baino gehiagoko adinduna, baldin eta 45 urteak bete baditu jarduera ekonomikoaren alta-datarako: 5 puntu.
3) 50 urte baino gehiagoko adinduna, baldin eta 50 urteak bete baditu jarduera ekonomikoaren alta-datarako: 7 puntu.

d) Entitate onuradunaren zerga-egoitza dagoen udalerrian erregistratutako langabezia-indizea.

Irizpide hori kalkulatzeko, kontuan hartuko da 2022ko urrian udalerri bakoitzean erregistratutako langabezia-indizea (iturria: Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzua). Puntuak honela emango dira:

1) %10eko langabezia-tasa edo txikiagoa: puntu 1.
2) %10 baino gehiagoko baina %13 baino gutxiagoko langabezia-tasa: 2 puntu.
3) %13tik %16a arteko langabezia-tasa: 3 puntu.
4) %16ko edo gehiagoko langabezia-tasa: 4 puntu.

Horretarako, I. eranskinean ematen dira udalerrien zerrenda eta haietako bakoitzari langabezia-indizearen arabera emandako puntuazioa.

e) Entitateak gauzatzen duen jarduera ekonomikoa kontuan izanda, kasu hauetan 10 puntuko gehieneko puntuazioa lortuko da:

1) Jarduera ekonomikoa honako jarduera-arlo hauetako bati baldin badagokio: industria; digitalizazioa; zaintzaren ekonomia; ingurumen-jasangarritasuna. Arlo horien parte izateak 5 puntu emango ditu guztira.
2) Izaera berritzailea duten jarduerak, edota ekonomia, gizarte eta ingurumen arloetan inpaktu-ekintzailetza proposatzen dutenak. Arlo horien parte izateak 5 puntu emango ditu guztira:
   — Izaera berritzailea: merkatuan lehendik dauden produktu, zerbitzu edo prozesuetatik nabarmenki desberdintzen diren produktu, zerbitzu edo negozio-prozesuak (edo guztien konbinazioa) sortzeko planteamendua justifikatzen duten enpresa-proiektuak.
   — Inpaktu-ekintzailetza: ekonomia, gizarte edo ingurumen arloan balio erantsia sortzea justifikatzen duten enpresa-proiektuek.
3) Irizpide honetan 0 puntu lortuko dituzte beren jarduera aurreko paragrafoetan azaldutakoen artean ez duten entitateek, eta, edonola ere, entitatea alta emanda daukan jarduera ekonomikoak lotura zuzenik ez duenean negozio-planarekin.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

f) Dirulaguntzaren enpresa onuradunaren forma juridikoa. Irizpide hori kalkulatzeko honela puntuatuko da: Gizarte-ekonomiako enpresak direnean: kooperatibak edo lan-sozietateak: 5 puntu eta gainerako balizkoak: 0 puntu.

g) 2021ean eta 2022an Barakaldoko DEMA Enpresa Garapenak sustatutako Anezka eta/edo Taldeka programetan eta/edo enpleguaren arloko prestakuntza-programa mistoetan parte hartu eta ondo gainditu dituzten pertsonak.

Inguruabar hori Barakaldoko DEMA Enpresa Garapenak emandako ziurtagiri baten bidez egiaztatuko da. 3 puntu eskuratuko dituzte, eratutako entitate bakoitzeko eta dirulaguntza eskatzaile bakoitzeko.

6. Behin eskaera guztiak baloratu eta gero, entitate onuradunen zerrenda egingo da, puntuazioaren ordenaren arabera, handienetik txikienera. Entitate batzuek puntuazio berdina lortzen badute, hurrenkera espedienteak dokumentazio guztia duen dataren arabera finkatuko da.

17. artikulua.— *Nahitaezko agiriak*

Dirulaguntzaren entitate eskatzaileak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu, eskabidearekin batera eta Internetez, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualaren bidez:

1. Nortasun juridikoko enpresak, ondasun-erkidegoak edo sozietate zibilak badira, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Banku-helbideratzearen fitxa.

Bankuko helbideratze-fitxa aurkeztu beharko da soilik Bizkaiko Foru Aldundiarekiko harremanetan dirulaguntza sartu nahi den kontua berria denean.

Fitxan adierazitako kontu-zenbakiak bat etorri beharko du eskabidean adierazitakoarekin.

Banku-helbideratzearen fitxak, baliozkoa izateko, alderdi guztiak beteta egon beharko du, horretarako eskatzen diren sinadurekin eta zigiluekin. Bete beharreko eredua Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailaren Bulego Birtualean egongo.

b) Sozietatearen eraketa-eskritura, eta ondasun-erkidegoei eta sozietate zibilei dagokienez, entitatearen eraketa-agiria.

c) Negozio-plana, zein datatan egin zen egiaztatzen duena, eta planaren idazketa parte hartu duen entitate aholkulariaren logotipoa jasoko duena.

Beste agiri batean, aparte, proiektuaren bideragarritasunari buruzko ebaluazio-txostena aurkeztu beharko da, entitate aholkulariak idatzita egon behar duena eta egin den data eta teknikari aholkulariaren sinadura jasoko dituena.

Txosten horrek berariaz zehaztu behar du aurkeztu den proiektua bideragarria den ala ez.

Txostenak ez badu zehazten proiektuaren bideragarritasuna, ezin izango da dirulaguntzarik jaso.

d) 14. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituen bazkide sustatzaile batek 2.1. artikuluan zehaztutako prestakuntza-ikastaroak egin dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, artikulu honen 3. zenbakian aipatzen den ziurtagiria, Barakaldoko DEMA Enpresa Garapenak emandakoa, aurkezten denean izan ezik.

e) Lanbidek edo beste enplegu-zerbitzu publiko batek emandako «Inskripzio-aldiei eta lan egoerari buruzko txostena» eta Gizarte Segurantzak emandako «Lan-bizitzari buruzko txostena». Txosten bien erreferentzia izan behar da 14. artikuluko baldintzak betetzen dituen sustatzaile bakoitzaren jarduera ekonomikoetako alta-eguna.

f) Hala badagokio, entitateak jarduera ekonomikoetan alta eman aurreko unean bertan, 14. artikuluko baldintzak betetzen dituen pertsona sustatzailea gizartean baztertuta egoteko arriskuan egon dela egiaztatzen duen agiria.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

g) 14. artikuluko baldintzak betetzen dituen sustatzaile bakoitzaren jarduera ekonomikoetako alta-egunean ohiko etxebizitza Bizkaiko Lurralde Historikoan zuela egiaztatzen duen errolda-ziurtagiria.

h) Langile autonomoen araubide berezian edo, hala badagokio, gizarte-aurreikuspeneko mutualitate baliokide batean alta emanda egotearen adierazpena, 14. artikuluko baldintzak betetzen dituen sustatzaile bakoitzeko.

i) Elkartutako lan-kooperatibetako bazkide langileek edo lan sozietateetako bazkide langileek Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean alta ematea erabaki badute, alta horrek kopia aurkeztu beharko dute.

2. Enpresaburu, enpresaburu indibidual edo profesionalak badira, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Banku-helbideratzearen fitxa.

Bankuko helbideratze-fitxa aurkeztu beharko da soilik Bizkaiko Foru Aldundiarekiko harremanetan dirulaguntza sartu nahi den kontua berria denean.

Fitxan adierazitako kontu-zenbakiak bat etorri beharko du eskabidean adierazitakoarekin.

Banku-helbideratzearen fitxak, baliozkoa izateko, alderdi guztiak beteta egon beharko du, horretarako eskatzen diren sinadurekin eta zigiluekin. Bete beharreko eredua Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailaren Bulego Birtualean egongo da.

b) Negozio-plana, zein datatan egin zen egiaztatzen duena, eta planaren idazketa parte hartu duen entitate aholkulariaren logotipoa jasoko duena.

Beste agiri batean, aparte, proiektuaren bideragarritasunari buruzko ebaluazio-txostena aurkeztu beharko da, entitate aholkulariak idatzita egon behar duena eta egin den data eta teknikari aholkulariaren sinadura jasoko dituena.

Txosten horrek berariaz zehaztu behar du aurkeztu den proiektua bideragarria den ala ez.

Txostenak ez badu zehazten proiektuaren bideragarritasuna, ezin izango da dirulaguntzarik jaso.

c) 2.1. artikuluan zehaztutako prestakuntza-ikastaroak egin direla egiaztatzen duen ziurtagiria, artikulu honen 3. zenbakian aipatzen den ziurtagiria, Barakaldoko DEMA Enpresa Garapenak emandakoa, aurkezten denean izan ezik.

d) Lanbidek edo beste enplegu-zerbitzu publiko batek emandako «Inskripzio-aldiei eta lan egoerari buruzko txostena» eta Gizarte Segurantzak emandako «Lan-bizitzari buruzko txostena».

Txosten bien erreferentzia izan behar da 14. artikuluko baldintzak betetzen dituen sustatzaile bakoitzaren jarduera ekonomikoetako alta-eguna.

e) Hala badagokio, jarduera ekonomikoetan alta eman aurreko unean bertan enpresaburu indibiduala edo profesionala gizartean baztertuta egoteko arriskuan egon dela egiaztatzen duen agiria.

f) Ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan egiaztatzeko erroldako ziurtagiria, enpresaburu indibidualaren edo profesionalaren jarduera ekonomikoetako altaren datari dagokiona.

g) Enpresaburu indibiduala edo profesionala langile autonomoen araubide berezian edo, hala badagokio, aurreikuspeneko mutualitate baliokidean alta emanda egoteari buruzko aitorpena.

3. Hala dagokionean, Barakaldoko DEMA Enpresa Garapenak emandako ziurtagiria, zeinak egiaztatuko duen sustatzaileak edo sustatzaileek, ezarritako oinarri arautzaileen babesean, 2021ean eta 2022an Barakaldoko DEMA Enpresa Garapenak sustatutako Anezka eta/edo Taldeka programetan eta/edo enpleguaren arloko prestakuntza-programa mistoetan parte hartu eta ondo gainditu dituztela.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

4. Entitateak gauzatzen duen jarduera ekonomiko motari buruzko 16. artikuluko 1. eta 2. apartatuetako e) irizpidea baloratzeko, txosten bat aurkeztu beharko da non justifikatzen baita jarduera «Zaintzaren ekonomiaren» arlokoa dela edo jarduerak izaera sozial eta berritzailea duela.

5. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Enplegua Sustatzeko Zerbitzuak, datuen elkarreragingarritasun-sistemen bidez (NODO) eta dirulaguntzak kudeatzeko, Administrazioaren esku dauden datuen beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egin ahal izango ditu.

6. Diruz lagundutako jardueren azterketa eta ebaluazioa edozein unetan egin daitezke, jarduera hasten denetik, eta jarduera amaitu eta gero ere egin daiteke.

Entitate onuradunak lankidetzan jardun beharko du Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailarekin, eta eskatzen zaizkion datuak eta agiriak aurkeztu beharko ditu.

18. artikulua.— *Dirulaguntza ordaintzea*

1. Emandako laguntza epe hauetan ordainduko da:

a) Dirulaguntza ematen den unean gehienez dirulaguntzaren %80raino ordainduko da.

b) Gainerako portzentajea 2024. urtean, ekintzak garatzeko emandako laguntzaren justifikazioa egindakoan, hilabete bateko epean jarduera ekonomikoetan alta eman denetik urtebete igarotakoan; horretarako, 19. artikuluan xedatutako justifikazio-agiriak aurkeztu beharko dira.

2. Justifikazioari dagokion dokumentazioa aurreko paragrafoan adierazitako epean aurkezten ez bada, errekerimendua egingo zaio 45. artikuluan aurrez ikusitako ez-betetzearen prozedura hasi aurretik aurkez dezan, zeina hasiko baita justifikazio-agiriak aurkeztu ezean edo behar bezala aurkeztu ezean.

3. Betebeharra aitortu eta dirulaguntza ordaindu aurretik, entitate onuradunek zerga betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak bete dituztela egiaztatuko da.

Egiaztapen horretan ikusten bada entitate onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, dekretu honen 45. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako behin betiko ez-betetzearen prozedura ebatziko da.

19. artikulua.— *Dirulaguntzaren justifikazioa*

1. Emandako diru-laguntza justifikatzeko, erakunde onuradunak honako dokumentazio hau aurkeztuko du Internet bidez, Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailaren Bulego Birtualaren bidez:

a) Autonomoen araubide bereziaren kasuan, Gizarte Segurantzak emandako ordaindutako kuoten txostena, jarduera ekonomikoetan alta ematen denetik urte natural bateko aldiari dagokiona.

b) Araubide orokorraren , langileen izenen zerrenda, Gizarte Segurantzan hilero egindako diru-sarreren likidazioa eta dagokion ordainagiria, jarduera ekonomikoan alta eman zenetik urte natural bateko aldiari dagozkionak.

c) Dagokion mutualitatearen txostena eta, mutualitateen kasuan, jarduera ekonomikoaren alta-datatik urte natural bateko aldiari dagozkion ordainagiriak.

2. Egoera bereziak gertatzen badira (gaixotasunaren ondoriozko baja, amatasun-edo aitatasun-baimenak edo beste egoera batzuk), dagokion ebazpena erantsi beharko da.

3. Edozelan ere, baja ematen bada jarduera ekonomikoan, orduan eskubidea galduko da data horretatik aurrera ordaintzeko dauden kopuruak kobratzeko. Kasu horretan, alta emanda egondako denborari dagokion justifikazioa aurkeztu beharko da.

4. Justifikazioa hilabete bateko (1) epean aurkeztuko da, jarduera ekonomikoaren alta eman eta urtebetera, eta enpresak dirulaguntza eman zitzaion jarduera ekonomiko

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

berean alta emanda egon beharko du justifikatutako zenbatekoa ordaindu arte. Ordaindu aurretik jarduera ekonomikoan baja emanez gero, kobratzeko eskubidea galduko du.

5. Era berean, egiaztatuko da entitate onuradunak betetzen dituela betebehar fiskal eta tributarioak, forma juridikoaren eta jarduera ekonomikoaren arabera dagozkionak. Diruz lagundutako epean bete beharko ditu, besteak beste, hauek: PFEZren konturako atxikipenen ingresua; konturako ordainketak; PFEZren aitorpenak; BEZaren aitorpenak, Sozietateen gaineko Zerga eta abar.

6. Egiaztapen horretan ikusten bada ez dagoela egiaztatuta jarduera ekonomikoa egin dela, diruz lagundutako aldiari dagozkion fakturak aurkezteko eta/edo eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua (140 eredua) eta/ edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga. Zatikako ordainketa. Enpresaburu eta profesionalak (130 eredua) aurkezteko eskatuko da.

7. Ez bada egiaztatzen jarduera ekonomikoa egin dela edo zerga-betebeharrak eta tributuen arlokoak bete ez badira, dekretu honen 45. artikuluan eta hurrengoetan ez-betetzerako eta itzulketarako ezarritako prozedura hasiko da.

3. ATALA

ENPRESA TRANSMISIOA

20. artikulua.—*Diruz lagun daitekeen ekintza*

1. Enpresa-transmisioan datza, horrela ulertuta:

a) Funtzionamenduan dagoen enpresa baten gutxienez %80 eskuratzea, enpresen partetik, edozein forma juridiko dutela, enpresaburu indibidualak barne, baita ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek ere, betiere atal honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

b) Jarduera berberarekin jarraitzea, kokapen berean, irteten den enpresaren jardueraren titulartasuna iraungiz, zeinahi dela haien forma juridikoa, eta eskuratzaileak alta berria eskatuz, hau da, negozio-eskualdaketa.

2. Gainera, honako betekizun hauek ere eman beharko dira:

a) Enpresa-transmisioak Barakaldoko DEMA Enpresa Garapenaren baimena eduki behar du, edo I. Ataleko entitate adjudikatzailearena, DEMAren enpresa-transmisioko metodologia aplikatu duena. Ondorio horietarako, eskualdaketa DEMAk edo I. ataleko entitate adjudikatzaileak tutorizatu ahal izango du, baldin eta lagatzaileak aldez aurretik zehaztu ez badu eskualdatu nahi duen enpresaren edo eskualdatu nahi duen negozioaren balioa, eta hala egiaztatzen bada 25.5 artikuluan aipatutako ziurtagirian.

b) Enpresa-transmisioa merkataritza-kontratu bidez egin behar da, eskritura publikoarekin, merkataritzako funts-balioa adieraziz; edo negozio-eskualdaketen kasuan kontratu bidez.

3. Negozio digitalak eta senide edo ezkontide arteko eskualdaketak kanpo uzten dira, afinitate, odolkidetasunaren hirugarren gradura arte.

4. Enpresa-transmisioa egin ondoren, jarduera ekonomiko berbera mantendu beharko da gutxienez urtebetez.

21. artikulua.—*Entitate onuradunak*

1. Atal honetan ezarritako onurak lortzeko aukera izango dute enpresa-transmisioz eskuratutako enpresek, zeinahi dela haien forma juridikoa, enpresaburu indibidualak barne, baita ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek ere, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Eskuratzea 2022ko urriaren 1etik 2023ko uztailaren 30ra artean egin izana. Titulartasun-aldaketa Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan jasota geratu behar da, 20.1.a) artikuluan aurreikusitako eskual-

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

daketen kasuan; edo 20.1.b) artikuluan aurreikusitako negozio-eskualdaketen kasuan JEZen altan.

b) Sozietatearen egoitza eta zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea. Eta, era berean, lantokia ere lurralde horretan izatea.

c) Egunean izatea bere zerga-betebeharrak edo indarreko xedapenek ezarritako Gizarte Segurantzarekikoak.

d) 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluko zein ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluko debekuetan aipatzen diren egoeretako batean ez egotea.

e) Pertsona fisiko eta juridiko hauek ezin izango dute, inola ere, inolako laguntza edo dirulaguntzarik jaso:

1) Berdintasunerako eta sexuan oinarritutako bereizkeriarik ez izateko eskubidea urratzeagatik zehapen irmoa izatea administrazio-, lan- edo zigor-bidean.

2) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren aurkakoak diren xede edo helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak.

3) Ez betetzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen III. tituluan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan.

Halaber, ezin izango dira diruz lagundu sexuagatiko bazterkeria eragiten duten jarduerak edo ekintzak.

2. Aurreko 1. atalean aipatutako entitate onuradunetako langile-bazkideek betekizun hauek bete behar dituzte:

a) Transmititzen den entitateko bazkide edo titularra ez izatea, merkataritza-kontratua edo eskualdaketa-kontratua egiten den unean.

b) Horietakoren bat 23. artikuluan aurreikusi bezala zenbatu behar da, dirulaguntza kalkulatze aldera.

22. artikulua.— *Eskuratzaileek bete beharreko baldintzak*

1. Entitate onuraduneko langile-bazkide gisa honako hau ulertzen da:

a) Beste enpresa bat eskuratzen duen pertsona autonomoa.

b) Ondasun-erkidego edo sozietate zibil bateko bazkide langilea.

c) Enpresa bateko bazkide langilea, zeinak bete beharko baititu, enpresako bazkide izateaz gainera, artikulu honen hurrengo atalean zehazten diren baldintzak ere.

d) Enpresako bazkide langilea, baldin eskuratzekoa duen enpresaren soldatapeko langile ere izan bada eta artikulu honetako 2. atalean zehaztutako baldintzak betetzen baditu.

2. Dirulaguntzari begira entitate onuraduneko langile bazkideak baldintza hauek bete behar ditu titulartasun-aldaketaren dataren justu aurretik, Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, 20.1.a) artikuluan aurreikusitako eskualdaketen kasuan; edo 20.1.b) artikuluan aurreikusitako negozio-eskualdaketetan JEZen alta emateko datari dagokionez:

a) Egoera hauetakoren bat egiaztatzea:

— Langabezia

— Enplegu-hobekuntza, non lan-kontratuak ez duen gainditzen hitzarmenez ezarritako lanaldiaren %40

— ABEEE baten edo EEE baten mende egotea edo

— Lanekoak ez diren praktikak egin izana.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

— Betekizun honetatik salbuetsiko dira saltzen den enpresako plantilako langileak enpresa erosleko bazkideak edo erosleak badira.

b) Jarduera ekonomikoetan alta eman aurretik, eskuratzaileak egiaztatu behar du ohiko bizilekua Bizkaian izan duela hiru hilabetez, gutxienez, etenik gabe.

c) Langile autonomoen araubide berezian edo mutualitate baliokidean 2022ko urriaren 1etik 2023ko uztailaren 28ra bitartean (biak barne) alta eman izana egiaztatzea.

Baldintza hori ez zaie eskatuko elkartutako lan-kooperatibetako bazkide langileei, ezta ere lan-sozietateetako bazkide langileei, Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean alta ematea erabaki badute; halere, alta hori aipatutako epe horren barruan gertatu behar da.

3. Gainera, entitate onuradunaren bazkide batek gutxienez 2. artikuluan aipatutako prestakuntza eginda izan beharko du, eta enpresa-transmisioko metodologia osatuta eduki beharko du, DEMA Barakaldoko Enpresa Garapenak erabilitakoa edo I. Ataleko entitate adjudikatzaileak erabilitakoa, DEMAko metodologia aplikatu badu enpresa-transmisioan eta hala ageri bada horretarako emandako ziurtagirian.

Aipatutako metodologia 2022ko urriaren 1etik 2023ko uztailaren 28ra bitartean garatu behar izan da, DEMA edo DEMAren entitate kolaboratzailearen eskutik.

3. ataleko baldintza hori erakunde onuraduneko bazkideetako batek bete behar du gutxienez, sozietatean duen partaidetza-ehunekoa, betiere pertsona horrek 1. eta 2. ataletako gainerako baldintzak betetzen baditu..

23. artikulua.— *Dirulaguntza kalkulatzea eta haren zenbatekoa*

1. Entitate onuradun bakoitzak 10.000 euroko dirulaguntza jasoko du, eta gehieneko dirulaguntza 20.000 eurokoa izango da.

2. Dirulaguntza lortzeko entitate onuradunak, 21. artikuluko betekizunak betetzeaz gain, 22. Artikuluko 1., 2. eta 3. ataletako betekizunak betetzen dituen langile bazkide bat eduki behar du.

3. Kopurua 5.000 eurotan gehituko da aurreko paragrafoan definitutako pertsona bakoitzaz gain aipatutako bazkide bakoitzeko, 22. artikuluko 1. eta 2. ataleko, edo 22. artikuluko 1., 2. eta 3. ataletako betekizunak betetzen baditu, gehienez bi bazkidera arte.

4. Beraz, bazkide langile diren 3 eskuratzaile har daitezke kontuan, gehienez, dirulaguntza kalkulatzeko; ondorioz, entitate onuradun bakoitzeko eman daitekeen dirulaguntzaren kopururik handiena 20.000 euro izango da guztira.

Entitate eskatzaile bakoitzak gehienez lor dezakeen dirulaguntza izango da artikulu honetan ezarritakoaren araberako zenbatekoa kalkulatzearen emaitza.

5. Hala ere, zenbatekoa aldatu ahalko da araubide orokorreko, autonomoen araubide bereziko edo kasuan kasuko mutualitateko altaren data titulartasun-aldaketa eta gero egin bada, hain zuzen ere titulartasun-aldaketa Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, 20.1.a) artikuluan aurreikusitako eskualdaketen kasuan; edo 20.1.b) artikuluan aurreikusitako negozio-eskualdaketetan JEZen alta datari dagokionez.

Kasu horretan, dirulaguntza kalkulatzeko, oinarritzat hartuko da gehieneko dirulaguntza, 12 hilabetetan zatituta, eta biderkatuko da araubide orokorrean, autonomoen araubide berezian edo dagokion mutualitatean alta emandako hilabeteekin, urtebetez, titulartasun-aldaketaren datatik, Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, 20.1.a) artikuluan aurreikusitako eskualdaketen kasuan; edo 20.1.b) artikuluan aurreikusitako negozio-eskualdaketetan JEZen alta emateko datari dagokionez.

6. Dirulaguntzaren kalkulua egiteko, eskuratzailea ez da kontuan hartuko:

a) Baldin eta baja hartu badu jarduera ekonomikoaren kode berean (lau digituko kode numerikoa), langile autonomoen araubideko lan istripuak eta lanbide-gaixotasunak direla-eta, edo jarduera berean, mutualitateen kasuan, 2023. urtean edo 2022. urteko azken seihilekoan.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

b) Parte hartzen duen enpresa-proiektu guztietan, kontuan hartuko da I. titulu honetako 2. atalean nahiz 3. atalean jasota dauden dirulaguntzetarako aurkeztutako proiektuetako batean bakarrik, zeina egokituko baitzaio Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualaren erregistroan aurrena sartu den eskabideari.

24. artikulua.— *Emateko prozedura eta balorazio-irizpideak*

1. Eskabideak norgehiagoka araubidearen bidez hautatuko dira, 37. artikuluan ezarritako moduan.

2. Aurkeztutako eskabideak baloratzeko eta dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko dira hurrengo balorazio-irizpideok; izan ere, irizpide hauek ezarriko zaizkio 22. artikuluko 1., 2. eta 3. apartatuetako baldintzak betetzen dituen eskuratzaileari.

3. Balorazio-irizpideak eta betekizunak betetzeko ondorioetarako erreferentzia gisa hartuko da titulartasun-aldaketaren data, Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, 20.1.a) artikuluan aurreikusitako eskualdaketen kasuan; edo 20.1.b) artikuluan aurreikusitako negozio-eskualdaketetan JEZen alta datari dagokionez.

4. Entitate onuradun batek bazkide bi edo gehiago dituenean, 22 1. 2. eta 3. artikuluko baldintzak betetzen dituztenak, orduan entitate onuradunak lortuko du 22 1. 2. eta 3. artikuluko baldintzak betetzen dituzten bazkideen puntuaziorik handiena.

Hau da, bazkide bakoitzaren puntuazio handiena hartuko da, hainbat eskuratzailek lortutako puntuazioak inola ere batu gabe.

5. Balorazio-irizpideak:

a) Langabezia-egoerako denbora. Irizpide hori balora dadin, entitate eskatzaileak txosten hauek aurkeztu behar ditu: «Inskripzio-aldiei eta lan-egoerari buruzko txostena», Lanbidek edo enplegu zerbitzu-publiko batek emana,; eta eskuratzailearen «Lan-bizitzari buruzko txostena», Gizarte Segurantzak emana.

Aipatutako txosten bien artean inkongruentziarik badago, lan-bizitzara edo mutualitate baliokidera joko da.

Langabezia-egoeratzat joko da bazkidea enplegu-zerbitzu publikoa batean etenik gabe enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egon den denbora, Gizarte Segurantzan edo antzeko mutualitate batean alta eman gabe egon bada.

Irizpide hau kalkulatzeko, irizpide hau honelaxe puntuatuko da:

1) Urtebete baino gutxiagoko langabezia-egoera: puntu 1.
2) Urtebeteko edo urtebete baino gehiagoko baina urte bi baino gutxiagoko langabezia-egoera: 3 puntu.
3) Urte biko edo gehiagoko langabezia-egoera: 5 puntu.

b) Bazkidearen adina. Irizpide hori kalkulatzeko, puntuak honela emango dira:

1) 30 urte arteko gaztea: 3 puntu.
2) 45 urte baino gehiagoko adinduna, baldin eta 45 urteak bete baditu: 5 puntu.
3) 50 urte baino gehiagoko adinduna, baldin eta 50 urteak bete baditu: 7 puntu.

c) Entitate onuradunaren zerga-egoitza dagoen udalerrian erregistratutako langabezia-indizea.

Irizpide hori kalkulatzeko, kontuan hartuko da 2022ko urrian udalerri bakoitzean erregistratutako langabezia-indizea (iturria: Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzua). Puntuak honela emango dira:

1) %10eko langabezia-tasa edo txikiagoa: puntu 1.
2) %10 baino gehiagoko baina %13 baino gutxiagoko langabezia-tasa: 2 puntu.
3) %13tik %16a arteko langabezia-tasa: 3 puntu.
4) %16ko edo gehiagoko langabezia-tasa: 4 puntu.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

Horretarako, I. eranskinean ematen dira udalerrien zerrenda eta haietako bakoitzari langabezia-indizearen arabera emandako puntuazioa.

d) Dirulaguntzaren enpresa onuradunaren forma juridikoaren irizpidea honela puntuatuko da: Gizarte-ekonomiako enpresak direnean: kooperatibak edo lan-sozietateak: 5 puntu eta gainerako balizkoak: 0 puntu.

e) Zenbat langile dituen enpresa eskuratzaileak, bazkide langileak barne hartua :

— 2 pertsonara arte: 1 puntu.

— 3 eta 5 pertsonaren artean: 3 puntu.

— 5 pertsonatik gora: 5 puntu.

f) Transmititu edo eskualdatutako negozioa 5.000 biztanletik beherako Bizkaiko udalerri batean badago, 5 punturekin baloratuko da.

g) Negozioa titularra jubilatzearen ondorioz transmititu edo eskualdatu bada, orduan 3 puntu emango zaizkio.

h) Transmititzen den enpresako langileak eskuratzaileak badira, 10 punturekin baloratuko da.

6. Behin eskaera guztiak baloratu eta gero, entitate onuradunen zerrenda egingo da, puntuazioaren ordenaren arabera, handienetik txikienera. Entitate batzuek puntuazio berdina lortzen badute, hurrenkera espedienteak dokumentazio guztia duen dataren arabera finkatuko da.

25. artikulua.— *Nahitaezko agiriak*

Dirulaguntzaren entitate eskatzaileak eskabidea aurkeztu beharko du, Internetez, eta horrekin batera nahitaezko dokumentazio hau ere aurkeztu beharko du, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualean:

1. Banku-helbideratzearen fitxa. Bankuko helbideratze-fitxa aurkeztu beharko da soilik Bizkaiko Foru Aldundiarekiko harremanetan dirulaguntza sartu nahi den kontua berria denean.

   Fitxan adierazitako kontu-zenbakiak bat etorri beharko du eskabidean adierazitakoarekin.

   Banku-helbideratzearen fitxak, baliozkoa izateko, alderdi guztiak beteta egon beharko du, horretarako eskatzen diren sinadurekin eta zigiluekin. Bete beharreko eredua Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailaren Bulego Birtualean egongo da.

2. Sozietatearen eraketa-eskritura, eta ondasun-erkidegoei eta sozietate zibilei dagokienez, entitatearen eraketa-agiria.

3. Enpresa-transmisioaren merkataritzako kontratua, eskritura publikoan eta ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren aurkezpenaren kopia.

   Eskualdaketaren kasuan, eskualdatze-kontratua.

4. Eskuratutako negozioaren bideragarritasunari buruzko ebaluazio-txostena, bai eta negozioaren balorazioa, arriskuaren balorazioa, transmisio-prozesua eta finantzaketa-iturriak.

   Txosten horrek berariaz zehaztu behar du aurkeztu den proiektua bideragarria den ala ez.

   Txostenak ez badu zehazten proiektuaren bideragarritasuna, ezin izango da dirulaguntzarik jaso.

5. Ziurtagiria, DEMAk edo I. Ataleko entitate adjudikatzaileak emandakoa, enpresa-transmisioan DEMAren metodologia aplikatu duela egiaztatzen duena.

6. Titulartasun-aldaketaren datan, Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, 20.1.a) artikuluan aurreikusitako eskualdaketen kasuan; edo 20.1.b) artikuluan aurreikusitako negozio-eskualdaketetan JEZen alta emateko datan, dirulaguntza eskatu duen entitateari dagokionez, 22. arti-

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

kuluko betekizunak betetzen dituen bazkide edo langile bakoitzeko egiaztatu beharko du:

a) «Inskripzio-aldiei eta lan egoerari buruzko txostena», Lanbidek edo beste enplegu zerbitzu publiko batek emana, eta «Lan-bizitzari buruzko txostena», Gizarte Segurantzak emana.

b) Ohiko bizilekua Bizkaiko Lurralde Historikoan duela egiaztatzeko errolda agiria.

c) Autonomoen Araubide Bereziko alta aitorpena edo, hala badagokio, dagokion bazkide aurreikuspenaren mutualitatea.

7. Baldin eta elkarlaneko kooperatibetako bazkide edo langile edo lan-sozietateetako bazkide langile diren eskuratzaileek Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean alta ematea erabaki badute, alta horren kopia aurkeztu beharko dute.

8. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Enplegua Sustatzeko Zerbitzuak, datuen elkarreragingarritasun-sistemen bidez (NODO) eta dirulaguntzak kudeatzeko, Administrazioaren esku dauden datuen beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egin ahal izango ditu.

9. Diruz lagundutako jardueren azterketa eta ebaluazioa edozein unetan egin daitezke, jarduera hasten denetik, eta jarduera amaitu eta gero ere egin daiteke.

Entitate onuradunak lankidetzan jardun beharko du Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailarekin, eta eskatzen zaizkion datuak eta agiriak aurkeztu beharko ditu.

26. artikulua.— *Dirulaguntza ordaintzea*

1. Emandako laguntza epe hauetan ordainduko da:

a) Dirulaguntza ematen den unean gehienez dirulaguntzaren %80raino ordainduko da.

b) Gainerako portzentajea, 2024. urtean, ekintzak gauzatzeko emandako laguntzaren justifikazioa egindakoan, zeina aurkeztu beharko baita hilabeteko (1) epean, behin urtebete igaro ondoren titulartasun-aldaketaren datatik, Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, 20.1.a) artikuluan aurreikusitako eskualdaketen kasuan; edo 20.1.b) artikuluan aurreikusitako negozio-eskualdaketetan JEZen alta emateko datari dagokionez, dirulaguntza eskatu duen entitatearena, 27. artikuluan zehaztutako justifikazio-agiriak aurkeztuz.

2. Justifikazioari dagokion dokumentazioa aurreko paragrafoan adierazitako epean aurkezten ez bada, errekerimendua egingo zaio 45. artikuluan aurrez ikusitako ez-betetze prozedura hasi aurretik aurkez dezan, zeina hasiko baita errekeritutako justifikazioa aurkeztu ezean edo behar bezala aurkeztu ezean.

3. Betebeharra aitortu eta dirulaguntza ordaindu aurretik, entitate onuradunek zerga betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak bete dituztela egiaztatuko da.

Egiaztapen horretan ikusten bada entitate onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, dekretu honen 45. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako behin betiko ez-betetzearen prozedura ebatziko da.

27. artikulua.— *Dirulaguntzaren justifikazioa.*

Honela egingo da justifikazioa:

1. Dirulaguntzaren ondorioetarako kontuan hartuko den langile-bazkide bakoitzari dagokion 5.000 euroko kopurua hilabeteko (1) epean justifikatuko da, urtebete igaro denean titulartasun-aldaketaren datatik, Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, 20.1.a) artikuluan aurreikusitako kasuan; edo 20.1.b) artikuluan aurreikusitako negozio-eskualdaketen kasuan, dirulaguntza eskatu duen entitatearen JEZen alta datari dagokionez, honako hauek aurkeztuz:

a) Autonomoen araubide bereziaren kasuan, ordaindutako kuoten txostena aurkeztuko da, Gizarte Segurantzak emandakoa, zeina urte natural baten aldiari egokituko baitzaio.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

b) Araubide orokorraren kasuan, langileen izenen zerrenda, hilero Gizarte Segurantzan egindako diru-sarreren likidazioa eta dagokion ordainagiria aurkeztuko dira, urte natural bateko aldiari dagozkionak.

c) Mutualitateen kasuan, dagokion mutualitatearen txostena eta urte natural bateko aldiari dagozkion ordainagiriak aurkeztuko dira.

d) Egoera bereziak gertatzen direnean (gaixotasunaren ondoriozko baja, amatasun- edo aitatasun-baimenak edo beste egoera batzuk), dagokion ebazpena erantsi beharko da.

2. 5.000 euroko kopuruan emandako dirulaguntzaren gainerako zatia justifikatuko da fakturak edo merkataritza-trafiko juridikoan parekidea den froga-balioa daukaten agiriak aurkeztu ondoren, ordainagiriekin, enpresa-transmisio edo eskualdaketako agiriekin batera, baita, hala badagokio, notarioko eta erregistroko gastuak ere.

3. Edozelan ere, baja ematen bada jarduera ekonomikoan, orduan eskubidea galduko da data horretatik aurrera ordaintzeko dauden kopuruak kobratzeko. Kasu horretan, alta emanda egondako denborari dagokion justifikazioa aurkeztu beharko da.

4. Justifikazioa hilabeteko epean (1) aurkeztu beharko da, urtebete igaro denean titulartasun-aldaketaren datatik, Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, 20.1.a) artikuluan aurreikusitako eskualdaketen kasuan; edo 20.1.b) artikuluan aurreikusitako negozio-eskualdaketetan JEZen alta eman den datari dagokionez, dirulaguntza eskatu duen entitatearen partetik.

5. Era berean, egiaztatuko da onuradunak betetzen dituela betebehar fiskal eta tributarioak, forma juridikoaren eta jarduera ekonomikoaren arabera dagozkionak. Diruz lagundutako epean bete beharko ditu, besteak beste, hauek: PFEZren konturako atxikipenen ingresua; konturako ordainketak; PFEZren aitorpenak; BEZaren aitorpenak, Sozietateen gaineko Zerga eta abar.

6. Egiaztapen horretan ikusten bada ez dagoela egiaztatuta jarduera ekonomikoa egin dela, diruz lagundutako aldiari dagozkion fakturak aurkezteko eta/edo eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua (140 eredua) eta/ edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga. Zatikako ordainketa. Enpresaburu eta profesionalak (130 eredua) aurkezteko eskatuko da.

7. Ez bada egiaztatzen jarduera ekonomikoa egin dela edo zerga-betebeharrak eta tributuen arlokoak bete ez badira, dekretu honen 45. artikuluan eta hurrengoetan ez-betetzerako eta itzulketarako ezarritako prozedura hasiko da.

II. TITULUA

ENPRESA-KONTSOLIDAZIOA

28. artikulua

Titulu honen xedea da, 2021eko eta 2022ko ekitaldietako autoenpleguari dagokionez, ekimen ekintzaileak sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileen dekretuetan oinarritutako enpresen jarraitutasuna eta sendotzea bultzatzera bideratutako laguntzak arautzea.

29. artikulua.—*Entitate onuradunak.*

1. Atal honetan ezarritako onurak eskuratzeko aukera izango dute enpresek, zeinahi dela haien izaera juridikoa, enpresaburu indibidualak barne direla, profesionalek, eta,77/2021 eta 34/2022 Foru Dekretuen kargurako dirulaguntza esleitu zitzaien ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Sozietatearen egoitza eta zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea. Eta, era berean, lantokia ere lurralde horretan izatea.

b) Egunean izatea bere zerga-betebeharrak edo indarreko xedapenek ezarritako Gizarte Segurantzarekikoak.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

c) 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluko zein ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluko debekuetan aipatzen diren egoeretako batean ez egotea.

d) Pertsona fisiko eta juridiko hauek ezin izango dute, inola ere, inolako laguntza edo dirulaguntzarik jaso:

1) Berdintasunerako eta sexuan oinarritutako bereizkeriarik ez izateko eskubidea urratzeagatik zehapen irmoa izatea administrazio-, lan- edo zigor-bidean.

2) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren aurkakoak diren xede edo helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak.

3) Ez betetzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen III. tituluan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo foru arau honetan ezarritako betebeharrak.

Halaber, ezin izango dira diruz lagundu sexuagatiko bazterkeria eragiten duten jarduerak edo ekintzak.

30. artikulua.— *Diruz lagun daitezkeen ekintzak*

1. 2022ko urriaren 1etik 2023ko uztailaren 28ra bitartean gauzatzen diren ekintza hauek jotzen dira diruz laguntzeko moduko gastutzat:

a) Komunikazio eta marketin arloko plan bat egitea enpresaren jarduerarekin lotuta.

b) Enpresaren lehiakortasuna hobetzen laguntzeari begirako digitalizazio-jardueren ondoriozko gastuak.

c) Enpresa-jarduera hobetzeko prestakuntza-gastuak, prestakuntza arautua izan ezik.

d) Laguntza tekniko espezializatuko zerbitzuak kontratzeak eragindako gastuak, zeinek helburu baitute enpresaren bideragarritasuna hobetzea edo enpresari laguntzen baitiote merkatu- posizionamendua hobetzen, negozioa garatzen, produktua, zerbitzua edo prozesua hobetzeari begirako berrikuntzan, nazioartekotzea bideragarri egiten, erantzukizun sozialean edo ingurumen-inpaktuan, gutxienez alderdi hauek biltzen badituzte:

1) Enpresaren egoeraren diagnostiko bat.

2) Enpresarentzako ekintza-plan espezifiko bat, barne hartu ahalko izango dituena, besteak beste, enpresaren estrategia orokor bat eta beste alderdi zehatz batzuk, hala nola ekonomiko-finantzarioak, komertzialak eta salmentarekin eta/edo marketin-teknikekin lotutakoak, antolaketari eta giza baliabideei dagozkionak, sozietate-harremanen arlokoak edo bestelakoak, enpresaren beharren arabera.

3) Aurreikusitako ekintza-plana gauzatzeko jarduerak abian jartzeko egutegi bat.

2. Prestakuntza arloan espezializatutako pertsona fisiko edo juridikoek eman beharko dute1.c) atalean adierazitako prestakuntza.

3. Enpresa eta ekintzaileei aholkularitza emateko jardueretan gutxienez hiru urteko esperientzia duten pertsona fisiko edo juridiko espezializatuek eman beharko dituzte 1d) apartatuan adierazitako enpresa eta ekintzaileei zuzendutako prestakuntza eta aholkularitza arloko zerbitzuak.

4. Dirulaguntza honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira kudeaketa administratiboko eta zerga, lan, finantza eta kontabilitate arloko aholkularitzako zerbitzu arruntak, zergak, tasak eta prezio publikoak, inbertsioak.

Banaka 100 euro (BEZik gabe) gainditu ondoren 2022ko urriaren 1etik 2023ko uztailaren 28ra bitartean jaulki diren gastuen fakturak bakarrik lagundu ahal izango dira diruz.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

31. artikulua.— *Dirulaguntzaren zenbatekoa*

1. Entitate onuradunak lor dezakeen gehieneko dirulaguntza 2.000 eurokoa izango da.

2. Diruz lagun daitezkeen ekintzak 2022ko urriaren 1etik 2023ko uztailaren 28ra bitartean gauzatu beharko dira.

32. artikulua.— *Dirulaguntza emateko prozedura*

Titulu honetan araututako dirulaguntzak norgehiagokarik gabeko araubideaz emango dira, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20. artikuluan xedatutako eran.

Dekretu honen ondorioetarako, hau jotzen da norgehiagokarik gabeko prozeduratzat: eskariak jaso ahala banatzea diru-funtsak. Hala, bada, eskabideek Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualaren erregistroan duten sarrera-dataren arabera ezarriko da eskarien arteko lehentasuna, betiere deialdian ezarritako betekizunak betetzen badituzte, aurrekontuko hornidurek ahalbidetzen duten bitartean emango dira laguntzak.

33. artikulua.— *Nahitaezko agiriak*

1. Dirulaguntza eskatzen duen entitateak honako nahitaezko dokumentazio hau aurkeztu beharko du, eskabidearekin batera eta Internetez, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualean:

a) Banku-helbideratzearen fitxa. Bankuko helbideratze-fitxa aurkeztu beharko da soilik Bizkaiko Foru Aldundiarekiko harremanetan dirulaguntza sartu nahi den kontua berria denean.

Fitxan adierazitako kontu-zenbakiak bat etorri beharko du eskabidean adierazitakoarekin.

Banku-helbideratzearen fitxak, baliozkoa izateko, alderdi guztiak beteta egon beharko du, horretarako eskatzen diren sinadurekin eta zigiluekin. Bete beharreko eredua Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailaren Bulego Birtualean egongo da.

b) Gauzatzekoak diren ekintzak, jardueraren eragina eta enpresaren lehiakortasuna justifikatzen dituen txostena.

c) Aurreikusitako ekintzen aurrekontuak edo fakturak.

2. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Enplegua Sustatzeko Zerbitzuak, datuen elkarreragingarritasun-sistemen bidez (NODO) eta dirulaguntzak kudeatzeko, Administrazioaren esku dauden datuen beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egin ahal izango ditu.

3. Diruz lagundutako jardueren azterketa eta ebaluazioa edozein unetan egin daitezke, jarduera hasten denetik, eta jarduera amaitu eta gero ere egin daiteke. Entitate onuradunak lankidetzan jardun beharko du Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailarekin, eta eskatzen zaizkion datuak eta agiriak aurkeztu beharko ditu.

34. artikulua.— *Dirulaguntza ordaindu eta justifikatzea*

1. Onartutako laguntza ordainduko da gauzatutako jarduerak justifikatzen dituzten fakturak eta haien ordainagiriak behin aurkeztuta 2022eko urriaren 1etik 2023ko uztailaren 28ra bitartean.

2. 2023ko uztailaren 28a izango da justifikazio-fakturak eta ordainagiriak aurkezteko muga-eguna.

Entitate onuradunak ez baditu fakturak ordaindu izanaren egiaztagiriak helarazi 2023ko uztailaren 28rako, 2023ko irailaren 15era arte izango du haiek aurkezteko.

3. Betebeharra aitortu eta dirulaguntza ordaindu aurretik, entitate onuradunek zerga betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak bete dituztela egiaztatuko da.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

Egiaztapen horretan ikusten bada entitate onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, dekretu honen 45. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako behin betiko ez-betetzearen prozedura ebatziko da.

III. TITULUA

PROZEDURA

35. artikulua.—*Eskabideak aurkezteko epea, modua eta tokia*

1. Eskabideak Internet bidez aurkeztu beharko dira, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Bulego Birtuala erabiliz, 39/2015 Legearen 16. artikuluarekin bat. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikora sartu behar da (www.ebizkaia.eus), eta bertan Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko sailaren Bulego Birtuala aukeratu.

Eskabidea behar bezala beteta aurkeztu beharko da, eta, horrekin batera, agiri hauek ere aurkeztu beharko dira: 1. ataleko laguntzen kasuan 8. artikuluan zehaztutako agiriak; 2. ataleko laguntzen kasuan 17. artikuluan zehaztutakoak eta III. titulurako 33. artikulukoak.

2. Bulego birtuala erabiltzeko, sistemak sinadura elektronikoa (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA, B@KQ...) eskatuko dizu.

B@KQ txartela hemen eskuratu ahal da:

— Laguntza - Erregistroa eta Herritarrenganako Laguntza Bulegoan (Diputazio kalea 7, beheko solairua, Foru Liburutegiaren kristalezko eraikina, Aldundiko Jauregiaren atzealdean, 48008 Bilbo. Sarrera: Metroko Moyua geralekua, Diputazio kaleko irteera).

— Durangoko herritarrentzako arretarako eskualdeko bulegoan (Askatasuna etorbidea 12. 48200 Durango).

— Bermeoko herritarrentzako arretarako eskualdeko bulegoan (Dolariaga kalea 19, 48370, Bermeo).

— Gernikako herritarrentzako arretarako eskualdeko bulegoan (San Juan Ibarra plaza 5, 483000 Gernika-Lumo).

— Balmasedako herritarrentzako arretarako eskualdeko bulegoan.

— Eta edozein KZgunetan.

3. Eskabide-orrira jo aurretik, sistemak Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Erakundeen Erregistroan inskripzioa egiteko beharrezkoak diren datuak eskatuko dizkio.

Inskripzio hori dirulaguntza eskatu aurretik egin behar da eta nahitaezkoa da. Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 14ko 109/2016 Foru Dekretuaren 6. artikuluaren arabera, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko entitate eta pertsona fisikoen erregistroa ezarri eta arautzeari buruzkoa.

Erregistro horren barruko datuetan edo eskabidean egiaztatutakoetan aldaketaren bat eginez gero Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari jakinarazi behar zaio, haren bulego birtualaren bidez.

4. Eskabideak aurkezteko epea honela hasiko da:

a) I. tituluko 1. ataleko Enpresa-proiektuak sortzeko eta abian jartzeko aholkularitza 2023ko urtarrilaren 9an hasiko da, 9:00etan, eta 2023ko urtarrilaren 27an amaituko, 13: 30ean.

b) I. tituluko 2. ataleko (Enpresak abian jartzeko eta sortzeko laguntzak) eskaeretarako, lehenengo deialdiko eskabideak aurkezteko epea 2023ko martxoaren 13an hasiko da, 9:00etan, eta 2023ko martxoaren 31n amaituko, 13: 30ean.

c) I. tituluko 3. ataleko Enpresa-eskualdaketa 2023ko martxoaren 13an hasiko da, 9: 00etan, eta 2023ko uztailaren 28an amaituko, 13: 30ean.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

d) II. tituluko eskaeretarako («Enpresa-kontsolidazioa»), 2023ko martxoaren 13an hasiko da, 9: 00etan, eta 2023ko uztailaren 28an amaituko, 13: 30ean.

36. artikulua.—*Prozeduraren hasiera eta izapidetzea*

1. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualaren bitartez, Internetez jasotako I. eta II. tituluetako dirulaguntza-eskaerek erabat beteta egon beharko dute, erantsi beharreko dokumentazioa eduki beharko dute, eta laguntzaren helburua aski azalduta egon beharko da. Edozelan ere, jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dagoen entitateak egin beharko du eskaera.

2. Hala ez bada, erakunde eskatzaileari errekerimendua bidaliko zaio, jakinarazpena jasoz geroko hamar (10) eguneko epearen barruan akatsa zuzen dezan edo 8., 17. 25 eta 33. artikuluetan aipatu diren nahitaezko agiriak aurkez ditzan, eskatutako laguntzaren arabera; halaber, adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela joko dela, 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera. Horretarako, ebazpen bat eman beharko da aurretik, 21. artikuluan ezarritakoaren arabera idatzia.

3. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak izapidetuko ditu eskabideak.

37. artikulua.—*Dirulaguntzen adjudikazioa: baldintzak eta araubidea*

1. Foru-dekretu honetan ezarritako baldintzen arabera emango dira dirulaguntzak eta laguntzak, kontuan harturik 6. artikuluan (I. tituluko 1. atala) 16. artikuluan (I. tituluko 2. atala) eta 32. artikuluan (II. titulua) ezarritako prozedurak.

2. 5/2005 Foru Arauaren 20. artikuluak ezarritakoari jarraituz, dekretu honen ondorioetarako, norgehiagoka deritzona da prozedura bat zeinaren bidez, dirulaguntzak emateko, aurkeztu diren eskabideak konparatzen baitira, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeari begira, kontuan harturik zer-nolako balorazio-irizpideak ezartzen diren 6. artikuluan, I. tituluko I. ataleko laguntzetarako, 16. artikuluan, I. tituluko 2. ataleko laguntzetarako, eta 24. artikuluan, I. tituluko 3. ataleko laguntzetarako; hala, irizpideok aplikatuz baloraziorik handiena lortu duten eskabideei adjudikatzen zaie laguntza, xedapen gehigarri bakarrean ezarritako muga errespetatuz.

Halere, I. tituluko 1. ataleko dirulaguntzetarako, kreditu baliagarriaren hainbanaketa ezarriko da dirulaguntzaren pertsona onuradunen artean, 6. artikuluan ezarritako eran.

I. tituluaren 2. atalaren kasuan, lehen deialdia Dekretuaren xedapen gehigarri bakarrean aipatutako aurrekontu-baliagarritasunaren gehiengoaren gainean egingo da. Ondorengo deialdia erabilgarri dagoen zenbatekoarekin egingo da, hau da, aurreko deialdian esleitu ez den zenbatekoarekin.

Deialdi bakoitzean, hala erabakitzen den aurrekontu-mugarekin, 16. artikuluko balorazio-irizpideak aplikatuz eskabideek lortu duten balorazio handiagoaren arabera esleituko da.»

3. II Tituluan araututako dirulaguntzak norgehiagokarik gabeko araubidearen bidez emango dira. 5/2005 Foru Arauaren 20. artikuluak ezarritakoari jarraiki, dekretu honen ondorioetarako, hau jotzen da norgehiagokarik gabeko prozeduratzat: eskariak jaso ahala banatzea diru-funtsak. Hala, bada, eskabideek Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualaren erregistroan duten sarrera-dataren arabera ezarriko da eskarien arteko lehentasuna, betiere deialdian ezarritako betekizunak betetzen badituzte, aurrekontuko hornidurek ahalbidetzen duten bitartean emango dira laguntzak

38. artikulua.—*Dirulaguntzak ematea eta errekurtsoak*

1. I. tituluko 1. atalean eta 3. ataletan jasota dauden dirulaguntzetarako egindako eskaerak atal bakoitzeko foru agindu bakar baten bidez ebatziko dira eta I. tituluko 2. atalean jasota dauden dirulaguntzetarako eskaerak deialdi bakoitzeko ebazpen baten bidez ebatziko dira. Ebazpen bakoitzean, 5/2005 Foru Arauaren 23. artikuluari jarraituz, jasota agertuko da laguntza onartu zaien entitate, enpresa edo pertsona eskatzaileen zerrenda, eta hauek zehaztuko dira: ezetsi diren eskabideak eta atzera egiteagatik, eskubideari

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

uko egiteagatik nahiz geroago sortutako ezintasun materialagatik eman gabeko dirulaguntzak.

2. Posta ziurtatuaren bidez egingo da I. tituluaren 1. atalean arautzen diren laguntzen deialdia ebazten duen foru-aginduaren jakinarazpena, 39/2015 Legean aurreikusitakoari jarraituz (40-44 artikuluak).

3. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta jakinaraziko da I. tituluaren 2. atalean eta 3. atalean araututako laguntzen deialdia ebazten duen foru-agindua, 39/2015 Legearen 45. artikuluari jarraituz.

Foru-agindu hori halaber jakinaraziko zaie, BAOn argitaratu eta hurrengo 10 egunen barruan, posta elektronikoz, I. tituluko 2. ataleko eta 3. ateleko laguntzetarako eskaera egin duten enpresa eta pertsonei.

4. II. tituluko dirulaguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren titularraren berariazko eta banakako foru agindu baten bidez ebatziko dira.

Kasu bakoitzari dagozkion baldintza bereziak ezarri ahalko dira dirulaguntzen eskabideei baiezkoa ematen dieten foru-aginduetan, eta entitate eta enpresa onuradunek nahitaez bete beharko dituzte baldintza horiek

Posta ziurtatuaren bidez egingo da II. tituluan arautzen diren laguntzen deialdia ebazten duten foru-aginduen jakinarazpena, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulutik 43. artikulura bitartean araututakoari jarraituz.

5. Deialdia ebazten duen foru-agindua argitalpen bidez (artikulu honen 3. apartatua) zein posta ziurtatuz (artikulu bereko 2. eta 4. apartatuak) jakinarazi ondoren, hamar (10) eguneko epea egongo da hura onartzeko edo ukatzeko, eta epe horretan ez bada beren-beregi ezer adierazten, isiltasunez onartutzat joko da., deialdia ebazten duen foru aginduan

6. Dekretu honetan araututako dirulaguntzak lortzeko ezarritako baldintzak bete beharko dira dirulaguntzarako eskabidea aurkezten den unean, diruz lagundutako gastua xedatzen denean (emateko ebazpena baino lehen) eta dirulaguntzaren zenbatekoa aitortu eta ordaintzen denean.

7. Eskabideak ebazteko gehieneko epealdia 6 hilabetekoa izango da deialdi bakoitzeko eskaerak aurkezteko ezarritako epea amaitzen denetik.

Ebazpena eta jakinarazpena emateko epea iraungi, eta beren beregiko ebazpena eman ez badu, eskabidea administrazio isilbidez ezetsi egin dela ulertuko da, ondoren ere 39/2015 Legearen 21 eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera beren-beregi ebatzi badaiteke ere.

8. Foru agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta haren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko titularrari, hilabete (1) bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Halaber, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, Administrazioarekiko Auzietarako dagokion Epaitegian, bi (2) hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritako eran.

Ezingo dira errekurtso biak aldi berean jarri.

39. artikulua.—*Laguntzak emateko prozedura antolatu, aztertu eta ebatziko duten organo eskudunak*

Dirulaguntzen eskabideak izapidetuko ditu Enplegu Zerbitzuak, eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru-diputatuak ebatziko, behin Enplegua Sustatzeko zuzendari nagusiak proposatuta.

Organo instruktoreak egiaztatu egingo du foru-dekretu honetan onuradunaren izaera lortzeko ezarritako baldintzak betetzen direla.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

Norgehiagoka kasuan, deialdia ebazten duen foru aginduan, laguntza ematen zaien onuradunen zerrenda eta gainerako eskaeren berariazko ukoa jasoko dira. Horrez gainera, zerrenda batean ordenatuta agertu ahal izango dira oinarri arautzaileetan pertsona edo entitate onuraduna izateko zehazten diren baldintza administratibo eta tekniko guztiak bete arren deialdian ezarritako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditu delako onartu ez diren eskaera guztiak, eta deialdian ezarritako balorazio-irizpideen arabera bakoitzari eman zaion puntuazioa adieraziko da.

40. artikulua.—*Entitate onuradunaren betebeharrak*

Foru-dekretu honetan ezartzen diren betebeharrez gain, laguntzak jasotzen dituzten entitateek maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12, 13, 31.5 eta 41. artikuluetan ezarritakoak ere bete beharko dituzte, besteak beste:

1. Dirulaguntza ematearen funtsa den jarduera egitea edo hartarako jokabidea hartzea.

   Ondorioz, laguntzaren erakunde onuradunak dirulaguntza jaso duen jarduera uzten badu,, jarduera ekonomikoetan baja eman duelako, galdu egingo luke dirulaguntzaren onuradunaren izaera eta, ondorioz, une horretatik ordainkizun dagoen kopurua kobratzeko eskubidea, jarduera ekonomikoan alta eman zuenetik urtebetea igaro bada ere.

2. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari justifikatzea laguntzaren xede den jarduera egin dela edo jokaera hartu dela, eta dirulaguntza ematea edo gozatzea eragin duten betekizunak eta baldintzak betetzen direla.

3. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak burutuko dituen egiaztapen-jarduketen pean jartzea, bai eta dirulaguntzen eta laguntzen arloan Ogasun eta Finantza Sailari dagokion finantzen kontrolerako jarduketen eta Herri Kontuen Euskal Auzitegiaren prozedura fiskalizatzaileen pean ere.

4. Dirulaguntza eman duen entitateari jakinaraztea beste edozein administrazio edo entitate publikok estatukoak zein nazioartekoak xede horretarako emandako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jaso direla.

5. Dirulaguntzaz gainera norberaren funtsak edo beste dirulaguntza zein baliabide batzuk erabili badira jarduerak finantzatzeko, justifikazio-agirian beste funts horien zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa ere egiaztatu beharko dira.

6. Entitate onuradunak emakumeen eta gizonen tratu berdina eta dirulaguntza honen xede diren baliabideak eskuratzeko berdintasuna bermatuko du.

   Era berean, material, irudi eta dokumentuetan ezin izango da erabili emakumea diskriminatzen duen irudirik, eta emakumeen eta gizonen berdintasun-balioak, rol aniztasuna eta erantzunkidetasuna sustatu beharko dituzte.

7. Kontabilitateko liburuak, erregistroak eta gainerako agiri guztiak edukitzea (kasu bakoitzean onuradunari aplikatu behar zaizkion merkataritzako eta arloko legerietan ezarritakoaren arabera auditatuak), eta halaber izatea dirulaguntza hauen oinarrietan eskatzen diren kontabilitateko egoera-orri eta erregistro espezifiko guztiak, horrela, egiaztapen- eta kontrol-ahalmenen erabilera egokia bermatzeko.

8. Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten agiriak kontserbatzea, dokumentu elektronikoak barne, kontrol ekonomikoko eta fiskalizazioko organoek egiaztapen eta kontrol ekintzetarako eska ditzaketen bitartean.

   Izan ere, Merkataritza Kodearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, liburuetan egindako azken idazpena igaro eta 6 urteko epean gorde beharko dira agiriok.

9. Zerga-betebeharrak eta, hala dagokionean, Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatu beharko dute.

   Inguruabar hori dirulaguntza eskatzen denean, diruz lagundutako gastua xedatzen denean (dirulaguntza ematezko ebazpena baino lehen) eta dirulaguntza aitortu eta ordaintzen denean egiaztatu beharko da.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

Edozelan ere, goian aipatu diren inguruabarrak egiaztatzeko, ez da inongo organismoren ziurtagiririk aurkeztu behar. Egoera hauek Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak egiaztatuko ditu, beti ere abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta urriaren 1eko 39/2015 Legea kontuan hartuta.

10. Egiaztapen horretan ikusten bada entitate onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, dekretu honen 45. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako behin betiko ez-betetzearen prozedura ebatziko da.
11. Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea entitate adjudikaziodunaren sozietate-izenari dagokion edozein aldaketa, bai eta haren forma juridikoari dagokiona edo bazkideen aldaketari dagokiona eta abar ere. Baita eskabidean adierazitako datuei buruzko edozein aldaketa edo inguruabarren berri ematea ere, baldin eta aldaketa edo inguruabar horrek dirulaguntza jasotzean edo dirulaguntzaren xedea den jardueran edo helburuan funtsezko eragina izan badezake.
12. Entitate onuradunak, 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluarekin bat, honako inguruabar hauen justifikazio-txostena aurkeztu beharko du, salbu eta interes publikoko arrazoiek justifikatzen badute betebehar horietatik salbuetsita egotea:
    a) Pertsona fisiko edo juridikoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu beharko dute lanpostuen definizioan, sarbidean, kontratazioan eta azkentzean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean eta bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa uztartzean, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan, eta ekintza sindikalean, ordezkaritzan eta negoziazio kolektiboan, lan-baldintza duinak, duinak eta ez-diskriminatzaileak ziurtatuz.
    b) Pertsona fisiko edo juridikoek zaindu beharko dute emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izatea, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta rol eta genero-identitate anitzen balioak dituen irudia sustatzen dutela, bai idatzizko informazioan, ahozkoan, ikonografikoan, publizitate-ekintzetan, barne- eta kanpo-komunikazioan, komunikazio formal eta informalean, bai proiektua edo jarduera gauzatzearekin lotutako materialetan.
    c) Pantillan 50 langile baino gehiago dituzten pertsona fisiko edo juridikoek Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legean aurreikusitako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana edukitzeko betebeharra betetzen dutela egiaztatu beharko dute, bai eta plan hori benetan aplikatzen dela ere.
    d) Plantillan hamabost langile baino gehiago dituzten pertsona fisiko edo juridikoek lan-eremuan indarkeria matxista prebenitzeko, jarduteko, jarraipena egiteko, ebaluatzeko eta desagerrarazteko neurriak hartuko direla bermatu beharko dute, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzkoak.
13. Entitate onuradunek euskara erabili beharko dute diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan.
14. Entitate onuradunek beren jardueraren berri herritarrei emateko erabiltzen dituzten liburuxka, kartel edo beste edozein euskarritan bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.

41. artikulua.— *Emandako dirulaguntzen publizitatea*

1. Ematen diren dirulaguntzen publizitateari dagokionez, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatuak foru-agindu bat emango du Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko zer dirulaguntza ematen diren, eta hor adieraziko da, batetik, aurrekontuko zer programari eta kredituri egozten zaizkion, eta, bestetik, adjudikaziodun gertatu diren entitateen eta bakoitzari emaniko diru-kopuruen zerrenda bat.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko argitalpenaz gain, 1. atalekoak http://web.bizkaia.eus/eu/enplegua-gizarteratzea-eta-berdintasuna webgunean argitaratuko dira, «Programak eta zerbitzuak» atalean, «Enplegua» aukeratu eta gero «Autoenplegua» aukeran sartuta).

2. Onuradunek behar bezala jakinarazi behar dute dekretu honen babesean diruz lagundutako jarduerak edo jarduerek finantzaketa publikoa jaso dutela.

Zehazki, eta I. tituluko 1. atalean diruz lagundutako jardueretarako, entitate adjudikaziodunak Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa eta bere logotipoa sartuko ditu negozio-plan bakoitzean, baita diruz lagundutako ikastaroa joateagatik eman zaion ziurtagirian eta bideragarritasun-txostenean ere.

Aldi berean, ikastaroei eta aholkularitza-zerbitzuari buruzko publizitatean, Bizkaiko Foru Aldundiaren finantzaketa jaso dela adierazten duen leloa sartu beharko da. Lelo hori inprimatutako materialetan, baliabide elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan agertu beharko da, baita komunikabideetan egindako aipamenetan ere.

3. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan xedatutakoarekin bat, entitate onuradunak II. tituluan publikotasun aktiboari dagokionez adierazitako betebeharrak bete behar ditu, betiere 2. artikuluan zehazten diren kasuetako batean badago:

Entitate pribatuak, aurrekontu-ekitaldi batean zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euro edo gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte edo haien urteko diru-sarreren %40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

4. Aurreko lerroaldeetan aipatu diren zabalkundeko neurriak beteko ez balira, onuradunari agindeia egingo litzaioke, ezarritako zabalkundeko neurriak har ditzan 15 eguneko epea amaitu baino lehen, ohartaraziz ez-betetze horrek dekretu honen 45. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako itzulketarako prozedura hastea ekarriko lukeela.

42. artikulua.—*Beste dirulaguntza batzuekin pilatzea*

1. I. tituluaren 1. atalean eta II. tituluan ezarritako laguntzak jasotzea bateragarria izango da 2. eta 30. artikuluetan, hurrenez hurren, definitutako diruz lagundu daitekeen ekintza bererako estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administraziok nahiz entitate publikok edo pribatuk ematen dituzten laguntza, dirulaguntza, sarrera edo baliabideekin. Hala ere, ezin izango da jarduera bererako dirulaguntza gehiago jaso Bizkaiko Foru Aldundiaren beste programa batetik, azken laguntza horiek bateraezinak izango baitira.

2. I. tituluaren 2. atalean eta 3. atalean jasotako laguntzak bateraezinak izango dira 12. eta 20. artikuluan, hurrenez hurren, definitutako diruz lagundu daitekeen ekintzarako estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administraziok nahiz entitate publikok edo pribatuk ematen dituzten laguntzekin.

3. Dirulaguntza guztien zenbatekoak ezin izango du inola ere gainditu lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ezta beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera ere.

4. Entitate onuradunek nahitaez jakinarazi behar diote dirulaguntza eman dien organoari beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk lortu dituztela hark diruz lagundu dituen jarduerak finantzatzeko.

Komunikazioa Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualaren bidez egin behar da, beste funtsok jaso izana jakin bezain laster egin behar da jakinarazpen hori, eta, betiere, jaso diren funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

Jakinarazteko betebehar hori ez betetzeak zehapena ekarriko du, 5/2005 Foru Arauarekin bat etorriz.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

43. artikulua.—*Dirulaguntzaren aldaketa*

Dirulaguntzak emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira (betiere dirulaguntzaren helburua eta xedea betetzen direla uste bada), dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, Horrelakoetan dekretu honetan edo deialdiari buruzko foru-aginduetan ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuko dira.

44. artikulua.—*Dirulaguntzaren gutxipena*

Diruz lagundutako ekintzak egin direla justifikatzeko ezarritako epeak igaro eta ez bada egiaztatu eta justifikatu ekintza guztiak aurrez ikusi bezala burutu direla, eta betiere laguntzen helburua eta xedea bete direla uste bada, dirulaguntzaren zenbatekoa doitzeari ekingo zaio, hurrengo artikuluan aurreikusitako prozedura hasiz, aurkeztutako justifikazioaren arabera. Horretarako, proportzionaltasun irizpidea deritzona erabiliko da, baita dirulaguntza emateko orduan ezarritako irizpideak eta mugak ere.

Modu berean jokatuko da baldin eta 19. eta 27. artikuluetan ezarritako justifikazioak ez badu egiaztatzen Gizarte Segurantzaren edo mutualitate baliokidearen hileroko kuota ordaindu dela urtebeteko aldian.

45. artikulua.—*Ez-betetzea*

1. Ez-betetzea gertatuko da entitate onuradunak betetzen ez duenean dekretu honetan edo dirulaguntza emateko ebazpenean edo ezarri beharreko gainerako arautegian ezarritako baldintzetako bat, bai eta Foru Administrazioak ematen dituen 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan ezarritako kasuetan ere.

2. Dirulaguntza eman ondoren, entitate onuradunak ez badu egiaztatzen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela dirulaguntzatik dagokion zatia ordaintzen zaionean, une horretan dagokion diru-kopurua kobratzeko eskubidea galduko du, eta bertan behera geratuko da dirulaguntza, ez-betetzearen ondorioz.

3. Ez-betetzea honako hauen arabera mailaka daiteke:

a) Baldintzetako bat edo batzuk ez betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik burutzeak dirulaguntzaren zati bat bakarrik ordaintzea ekarriko du edo, hala badagokio, dirulaguntzaren zati bat itzuli behar izatea. Itzulketa hori kalkulatzeko, jarduera osotik hartutako zatiaren proportzio bera erabiliko da.

b) Dirulaguntza kobratu eta gero, egindako gastu guztiak edo zati bat ordaindu gabe edukitzeak dirulaguntza itzuli behar izatea ekarriko du, diruz lagundutako gastu egotzi guztiekiko ordaindu gabe dauden gastuen proportzioan, I. tituluaren 1. atalean arautzen diren dirulaguntzetan batez ere.

c) Dirulaguntza bat eman denean gastu-aurrekontu bat erreferentzia legez hartuta, baina egotzi eta justifikatutako gastua aurrekontuan ezarritakoa baino txikiagoa bada, I. tituluaren 1. atalean eta II. tituluan arautzen diren dirulaguntzetan batez ere.

46. artikulua.—*Aldaketen, urripenen eta ez-betetzeen prozedura*

1. Dagokion administrazio-unitateak tramitatuko du prozedura, eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru-diputatuak ebatziko du, eta, hala badagokio, adieraziko du entitate onuradunek eman zitzaien eta jaso zuten kopurua guztiz edo partez itzuli behar duten.

2. Horrez gainera, ez-betetzea adierazten duen foru-aginduan zehapen-prozedura irekitzeko agindua eman daiteke, hala badagokio.

47. artikulua.—*Itzuli beharreko kredituak*

1. Dirulaguntzei buruzko erregelamendua onetsi duen 34/2010 Foru Dekretuaren 80. artikuluarekin bat etorriz, dirulaguntza itzultzeko prozedura abiarazten duen erabakian adierazi behar da prozedura hori zerk abiarazi duen, zer eginbide bete ez den eta dirulaguntzaren zer parteri eragiten dion.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

Onuradunari, erabakiaren berri jakinarazi, eta hamabost (15) eguneko epea emango zaio egokitzat jotzen dituen agiriak alegatzeko edo aurkezteko.

2. Dirulaguntza bat osorik edo haren zati bat itzultzen bada (dela aldaketa batengatik, dela gutxitzeagatik edo dela baldintzak ez betetzearen adierazpen batengatik), dirulaguntza ordaindu zenetik aurrera aplikatu behar diren berandutze-interesak ordaindu beharko dira, 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Erakunde onuradunak bere borondatez itzuli ahal izango du dirulaguntzaren zenbatekoa, Administrazioak aldez aurretik eskatu gabe.

Horretarako, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualaren bidez jakinarazi beharko du, espediente-zenbakia eta itzultzeko zenbatekoa adierazita.

Borondatezko itzulketa-eskaera jaso ondoren, berandutze-interesak 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluaren arabera kalkulatuko dira, ordainketa-gutuna egingo da eta borondatezko ordainketa-aldia irekiko da.

48. artikulua.—*Arautegi orokorra*

1. Dekretu honetan aipatzen diren dirulaguntzak honako hauek arautuko dituzte: dekretu hau bera, dirulaguntzen deialdia arautzen duen foru-agindua eta laguntzak emateko foru-aginduak, 5/2005 Foru Araua eta hura garatzen duen erregelamendua, eta Administrazio Zuzenbideko gainontzeko arauak. Halakorik ezean, Zuzenbide Pribatuko arauak aplikatuko dira.

2. Dekretu honetan administrazio-prozedurari buruz aurreikusi gabeko guztian, aplikatzekoak izango dira 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legea eta bere izaeragatik aplikatzekoa izan daitekeen beste edozein xedapen.

3. I. tituluaren 1. atalean aurreikusten diren laguntzak ez dira estatu-laguntzak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluko 1. zenbakian ezarritako moduan; izan ere, enpresari ez dakarkiote mozkinik, eta ez diete ekoizpen edo enpresa batzuei mesederik egiten beste batzuen kaltetan.

Beraz, salbuetsita daude tratatu horren 108.3 artikuluan ezarritako jakinarazpen-prozeduratik.

4. I. tituluko 2. eta 3. atalean eta II. tituluan aurreikusten diren laguntzak Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EE) Erregelamenduan xedatutakoa bete beharko dute. Erregelamendu hori Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialaren 2013ko abenduaren 18ko alean argitaratu zen, eta EE Itunaren 107 eta 108. artikuluak minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da. Horren ondorioz, erregelamendu hori ez betetzeak erantzukizun penala, zibila eta administratiboa ekar liezazkioke entitate arau-hausleari.

49. artikulua.—*Programaren jarraipena. Ikuskapena eta kontrola*

Entitate onuradunek deialdi honetako 10. 19. 27. eta 34. artikuluetan ezartzen diren epeetan bidali beharko dute eskatutako dokumentazioa Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailera.

Bestalde, laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak funtsean aldatzen dituzten gertakari guztien berri eman behar diote Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari, eta egiaztapen, jarraipen eta kontrol prozeduretan laguntza eskaini beharko diote.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak ekimen honek lortu nahi dituen helburuak lortuko direla bermatzeko beharrezkoak diren ikuskapen eta kontroleko ekintza guztiak egin ahal izango ditu.

50. artikulua.—*Datuen babesa*

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamenduaren (EB) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalen bermeari buruzko 2018ko abendua-

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

ren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, interesdunak ematen dituen datuak dena delako prozeduran edo jardueran aurrez ikusitako xedeetarako erabiliko dira soil-soilik.

Hala ere, datu horiek inola ere ez dira erabiliko, ez beste bati lagako, estatistika- edo ikerketa-ondorioetarako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo aurreko arauetan ezarritako kasuetako bat gertatu ezean.

Datuak lagatzen dituenak noiznahi baliarazi ahal izango ditu datuok eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta haien aurka egiteko eskubideak, araudiaren arabera ezartzen den eran.

Halaber, interesdunek edozein momentutan aukera izango dute datuen tratamenduari buruzko adostasunean atzera egiteko.

Bestetik, fitxategiaren arduraduna eta datuen tratamenduaren barruko edozein fasetan esku hartzen duen edozein pertsonak datu horien edukiaren gaineko sekretu profesionala gorde beharko du.

51. artikulua.—*Zehapen-prozedura*

Erakunde onuradunak 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan, «Dirulaguntzei buruzko arau-hauste eta zehapen administratiboak», ezarrita dauden arau-hausteetako bat egiten badu, zehapena ezarriko zaio, zehapen-espedientea ireki ondoren, 39/2015 Legean, 40/2015 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen zehapen-ahalmena arautzen duen otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

52. artikulua.—*Deslokalizazioa*

1. Entitate onuradunek beren gain hartzen dute enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa. Halakotzat hartuko da martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauak, enpresa-deslokalizazioen kasuan foro sektore publikoko laguntzak berreskuratzekoak, ezarritakoa, eta erabat aplikagarria izango da foru dekretu honetan araututako dirulaguntzetan

2. Konpromiso hori ez betetzea Bizkaiko Foru Aldundiaren erabaki bidez adieraziko da, eta emandako dirulaguntza itzultzeko arrazoia izango da, aipatutako foro arauan aurreikusitako prozedura aplikatuz.

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

I. ERANSKINA / ANEXO I

BIZKAIKO UDALERRIEN LANGABEZIA-TASA
ÍNDICE DE PARO DE LOS MUNICIPIOS DE BIZKAIA

PK / CP	Udalerria / Municipio	Langabezia tasa Índice de paro	Puntuazioa Puntuación
48001	Abadiño	9,1	1
48002	Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	12,2	2
48911	Ajangiz	3,9	1
48912	Alonsotegi	18,0	4
48003	Amorebieta-Etxano	8,0	1
48004	Amoroto	6,2	1
48005	Arakaldo	7,2	1
48006	Arantzazu	7,7	1
48008	Arcentales	14,9	3
48093	Areatza	9,2	1
48009	Arrankudiaga	7,4	1
48914	Arratzu	3,3	1
48010	Arrieta	7,0	1
48011	Arrigorriaga	11,0	2
48023	Artea	8,5	1
48091	Atxondo	6,5	1
48070	Aulesti	7,6	1
48012	Bakio	7,9	1
48090	Balmaseda	15,3	3
48013	Barakaldo	12,6	2
48014	Barrika	9,8	1
48015	Basauri	13,2	3
48092	Bedia	7,7	1
48016	Berango	8,6	1
48017	Bermeo	11,3	2
48018	Berriatúa	6,6	1
48019	Bérriz	8,3	1
48020	Bilbao	12,9	2
48915	Bolivar	7,4	1
48021	Busturia	10,2	2
48022	Carranza	10,9	2
48901	Derio	7,9	1
48026	Dima	6,9	1
48027	Durango	8,7	1
48028	Ea	8,6	1
48031	Elantxobe	7,8	1
48032	Elorrio	6,5	1
48902	Erandio	10,4	2

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

PK / CP	Udalerria / Municipio	Langabezia tasa Índice de paro	Puntuazioa Puntuación
48033	Ereño	5,8	1
48034	Ermua	10,4	2
48079	Errigoiti	9,3	1
48029	Etxebarri, Ant. de S. Est. - Etxebarri D. E.	8,7	1
48030	Etxebarria	7,8	1
48906	Forua	9,0	1
48035	Fruiz	7,8	1
48036	Galdakao	9,0	1
48037	Galdames	9,7	1
48038	Gamiz-Fika	6,4	1
48039	Garay	1,7	1
48040	Gatika	7,5	1
48041	Gautegiz Arteaga	5,6	1
48046	Gernika-Lumo	9,6	1
48044	Getxo	8,5	1
48042	Gordexola	7,7	1
48043	Górliz	8,8	1
48045	Güeñes	12,8	2
48047	Guizaburuaga	2,1	1
48048	Ibarrangelu	12,6	2
48094	Igorre	10,2	2
48049	Ispaster	4,9	1
48910	Iurreta	9,4	1
48050	Izurtza	7,4	1
48907	Kortezubi	6,8	1
48051	Lanestosa	15,5	3
48052	Larrabetzu	6,9	1
48053	Laukiz	6,4	1
48054	Leioa	9,4	1
48057	Lekeitio	7,7	1
48055	Lemoa	9,4	1
48056	Lemoiz	9,7	1
48081	Lezama	7,2	1
48903	Loiu	7,1	1
48058	Mallabia	5,9	1
48059	Mañaria	5,0	1
48060	Markina-Xemein	6,8	1
48061	Maruri/Jatabe	6,5	1
48062	Mendata	4,4	1
48063	Mendexa	5,8	1
48064	Meñaka	4,5	1

eek: BAO-2023a004-(I-1185)

PK / CP	Udalerria / Municipio	Langabezia tasa Índice de paro	Puntuazioa Puntuación
48066	Morga	10,4	2
48068	Mundaka	7,9	1
48069	Mungia	8,9	1
48007	Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz	7,3	1
48908	Murueta	5,4	1
48071	Muskiz	11,2	2
48067	Muxika	7,5	1
48909	Nabarniz	4,1	1
48073	Ondarroa	9,9	1
48074	Orduña	3,7	1
48075	Orozko	2,3	1
48083	Ortuella	14,7	3
48072	Otxandio	7,3	1
48077	Plentzia	9,1	1
48078	Portugalete	13,0	3
48082	Santurtzi	14,5	3
48084	Sestao	16,3	4
48904	Sondika	8,3	1
48085	Sopelana	9,3	1
48086	Sopuerta	9,5	1
48076	Sukarrieta	9,2	1
48087	Trucios-Turtzioz	13,0	3
48088	Ubide	2,9	1
48065	Ugao-Miraballes	11,1	2
48089	Urdúliz	8,4	1
48080	Valle de Trápaga-Trapagaran	11,9	2
48095	Zaldibar	9,2	1
48096	Zalla	12,4	2
48905	Zamudio	8,5	1
48097	Zaratamo	12,1	2
48024	Zeanuri	5,8	1
48025	Zeberio	8,4	1
48913	Zierbena	9,4	1

eek: BAO-2023a004-(I-1185)